

ELKARRIZKETA: JOSE ANJEL ATXON, HISTORIALARIA

# Arrasate

P R E S S

2000.eko  
ekainaren 8a  
488. zenb.



## Agur eta ohore

Azken ikazkinak

IKUSPEGIA: NEKANE SAN MIGEL • EUREN IKUSPUNTUTIK: JULIA MONGE  
ROLAK: SASKIBALOI TXAPELKETA • KULTURA ELKARRIZKETA: GETXOKO ANTZERKI ESKOLA

Getxoko Antzerki Eskola

aurkeztua

# Compromiso



Amaia Antzokia

Jon Zubiaga,  
Garbiñe Lizaranzu eta  
Aitziber Zumalde  
aktore arrasatearren  
partaidetzarekin

Ekainak 10, larunbata  
Gaueko 22:30ean  
Sarrera: 1000 PTA.  
Gazte txartelarekin: 800 PTA.



ARRASATEKO UDALA

Kultura Saila

# Esanak eta izanak

Cadizeko herri batean bi gaztek lagun ohi bat erail ondoren, bost urteko kartzela zigorra jasoko duten susmoak bazter guztiak aztoratu ditu. Fiskaltzak eta Salaketa Partikularrak zigor kartzela luzeagoa eskatu dute.

Beste bizpahiru emazte erail ditu bikotekideak. Honetan ere, kartzela zigor luzeak "soluziotzat" aldarrikatzen dira... gizartearen errua(?) zurituko luketelakoan?

Ezin ahaztu orain 15-20 urte, urtero dozenaka emakume senar edo kideak erailda gertatzen zirenean egiten genituen salaketatan, zein bakarrik gelditzen ginen... Horren arrazoia heziketa, eta gizasemearen botere jarrerari ematen genionean, zein erotzat ematen gintuzten. Epaitegian, abokatu lanetan tratu txar salaketa anitz aurkeztu arren, nola absoluzioan



Nekane San Migel

gelditzen ziren: baten hitza bestearen kontra... besterik ez omen zegoen, eta emakumea partziala, interesatua (eta gezurtia?) zenez, ez zen nahiko froga berak deskribatzen zuen infernua (kontatze hutsa zein laidogarri izan zitekeen pentsatu gabe).

Zehaztasunez arrazoia jakin ez arren, azkenengo hiru urteetan badirudi emakumearen bizitzak interes pixka bat

duela, eta heriotz horiek erantzun bat behar dutela, tratu txarrak ez direla asmatutakoak, eta "buru prestuak" badirudi konturatze daudela, egunero gutxiespen txiki, baina berri bat adierazteak ahulena deuseztapenerako bidean edo heriotzaren amildegian utz dezakeela. Agian, hilda gero zigor gogorak ezartzea baino, "errentagarritasun" gehiago ote den beste modu batean hezi, (berdintasuna arakatzeko) babes neurriak sendotzea (salaketak txantxak ez diren

seinale)... pentsatzen hasiak omen dira.

Ez dakit Cadizkoa modukoak beti eman ohi diren, edo, berriz ere, hedabideek puztutakoak diren... Zigorren (mendekua) ibiltzeak berea ekarriko gaitu... Burua zuritu ezinik arrazoiaren bila hasi beharko dugu, eta hamaika aldiz esandakoa errepikatu: Airean ez direla eusten gertakizun hauek, egunero sarea egiten ehule finak gabela: heriotza joku bihurtu, eta oso ez diren hainbaten buruei bereizketak egiteko tresnarik eman gabe, erailketa bortitzak ikusten ditugu, patatatortillaren gustuarekin bat eginik; urkoa zapaldu eta bestearen beheramendu horrek zein plazer sortzen duen une horretan irabazten duenarengan inolako lotsarik gabe erakutsi eta begiratu; gizakia tresnatzat hartuz, erabilia, eta erabilgarria den neurrian bakarrik interes sortzailea... Hau dago hedatuta, ikusia eta baloratua...orain eta aspaldiko garaietan... Kartzela zigorraren helburuetariko bat, bergizarteratzea omen da: Egindakoak eginda gero,

Cadizeko neskato eta antzekoekin, horrelako "etxeko-lanak" errepasatuko ditugu?...

## Heriotza joku bihurtu eta erailketa bortitzak ikusten ditugu

*"Euskal Herrian ez dago antzerkia ikusteko tradizio handirik. Akaso marketing apur bat falta zaio hemen antzerkiari".*

J. Zubiaga, G. Lizarazu eta A. Zumalde

# 9.000.000

pezeta emango die udalak herriko gobernuz kanpoko erakundeei.

Nikaragua, Kolonia, Boli Kostata, Ukraina, Peru, eta Bolivian garatuko dituzten proiektuei laguntza emateko izango da dirua. Zortzi GKEk jaso dute.

Horrez gain, Chernobilen Lagunak taldearen proiektuaren bitartez, Ukrainako hiru haur Mondragoera etorriko dira udan.

### AURKIBIDEA

- Ikuspegia . . . . . 3
- Esanak eta izanak
- Irakurlea idazle . . . . . 4/5
- Euren ikuspuntutik . . . . . 6
- Eskola Publikoa
- Inkesta . . . . . 7
- Asteko hitzorduak . . . . . 8/9
- Begi kolpez . . . . . 10
- Astearen errepasoa . . . . . 11
- Orain eta hemen . . . . . 12/13
- Txutxumutxuak . . . . . 14/15
- Asteko gaia . . . . . 16/17
- Euskara eta hezkuntza, bikote oparora
- Aurrez aurre . . . . . 18/19
- Jose Angel Atxon
- Zaldibar . . . . . 20
- Kirolak jokoan . . . . . 21/22
- Kulturaren txokoa . . . . . 23/25
- Ikusi eta entzun . . . . . 26/27
- Azoka plaza . . . . . 28/29
- Foto zaharra . . . . . 30

**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS  
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31  
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89  
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net

Laguntzailea: Arrasateko Udala. Zuzendaria: Marijo Deogracias. Kazetariak: Ubane Madera, Maider Osa, Leire Kortabaria eta Gorka Etxabe. Publizitatea: Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arroabe. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). Zuzentzailea: Sergio Azkarate. Administrazioa: Agurtzane Gainzarain, Ane Berebizbar (Tel.: 943 71 23 90) Diseinua: Maddi Trubso. Asteburuetako berriemakia: Lorea Agiriano Kolaboratzaileak: Mikel Irizar, Karmele Perez, Nekane San Migel, Iker Ezpeleta eta Udako Gaztania Saia. Banaketa arduraduna: Naiara Odriozola-AED. (Tel.: 943 71 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.500. Lege-Gordailua: 1124/88. ISSN: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubi-llaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldi-zikloaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Marijo Deogracias.

## BEHARREZKO TELEFONOAK

### Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00  
Iguualatorria ..... 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea  
(gizonak) ..... 943 79 39 00  
(emakumeak) ..... 943 79 44 11  
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

### Larrialdiak

SOS Deiak ..... 112  
Gurutze Gorria ..... 943 76 55 76  
DYA ..... 943 78 71 57

### Anbulatorioak

Guardiako medikua ..... 943 46 11 11  
Arrasate  
• Txanda hartzeko: medikuntza  
orokorra eta pediatria ..... 943 03 52 50  
• Espezialitateak ..... 943 03 53 11  
• Ikuskatzailea ..... 943 03 52 52  
• Kanpoko kontsultak ..... 943 03 53 11  
Aretxabaleta ..... 943 79 74 58  
Aramio ..... 945 44 53 40

### Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

### Udaltzaingoa

Oñati ..... 943 78 04 11  
Bergara ..... 943 77 91 06  
Arrasate ..... 943 79 14 39  
Aretxabaleta ..... 943 79 10 52  
Eskoriatza ..... 943 71 44 07

### Ertzaintza

Arrasate ..... 943 79 71 99

### Suhiltzaileak

Udal taldea ..... 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde-Parkea ..... 088

### Matxurak

Urak (udal zerbitzua) ..... 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) ..... 943 12 01 62  
Gasa ..... 900 40 05 23  
..... 943 79 78 44  
..... 943 79 76 78

### Garraioak

Taxiak ..... 943 79 12 22  
PESA ..... 902 10 12 10

### Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza ..... 943 79 72 11  
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

### Monterron liburategia

Monterron ..... 943 77 01 05

### Irratia

Arrasate Irratia ..... 943 79 58 77

## IKASTOLEN JAIETAKO AUTOBUSEN INGURUKO OHARRA

**1**996. urtetik hona, Debagunek, Debagoieneko euskara elkarten elkar-goak, Ikastolek antolatzen dituzten jaietara joateko autobusak jarri izan ditu. Nafarroa Oinezera eta Herri Urratsera joateko, gainera, bezperan ere autobusa antolatu izan du hurrengo eguneko festan laguntzera joandako kideentzat.

Autobusak antolatzeko ekintzak, sensibilizazio lan bat egitea eta, bide batez, euskararekiko motibatzea izan du helburu.

Iazko neguan, urteko festak pasatu ostean eta ekintzon balorazioa egiterakoan, guk markatutako helbururik lortzen ez genuela ohartu ginen; zerbitzu soil bat ematen ari ginela ikusi genuen.

Zerbitzua ematea, beste helburu barik, gure lana ez dela izan behar uste dugu, antolatzailleena baizik. Horregatik, bailarako hainbat ikastolarekin harremanetan jarri ginen gure erabakia ezagutarazteko eta, bide batez, beraiek zerbitzua antolatzera erabakiz gero, gure laguntza eskaintzeko. Ikastolek ikastolen jaietara autobusak ez antolatzeko erabakia hartuz gero, antolatuko dituenari, inor prest balego, gure laguntza emateko prest gaude.

Bestalde, Nafarroa Oinezera bezperan laguntzera joateko eta Herri Urratsera bai bezperan eta baita egunean ere

joateko autobusak antolatuko dira, batetik, gure helburuak betetzen laguntzen digulako eta, bestetik, Herri Urratsen kasuan, iparraldeko eta hegoaldeko ikastolen egoera guztiz ezberdina delako, eta AEDn Iparraldearekin elkarlanean aritzeko Hegoaxe taldea dagoelako.

Gutun honen bidez, zerbitzu hartzaile eta herritar orori jakinarazi nahi izan dizuegu gure erabakiaren arrazoia.

Besterik gabe, agur bero bat

DEBAGUNE

(Debagoieneko euskara elkarten elkargoa)

## EUSKAL IRAKASKUNTZARI MUGARIK EZ! LANBIDE HEZIKETAN EUSKARAZ!

**O**so ezaguna dugu Lanbide Heziketan euskararen egoera zein den. Gaur egun Euskal Herrian derrigorrezko ondoko hezkuntzan dagoen euskarazko eskaeraren aurrean, eskaintza oso murrizta da, eta batez ere hau Lanbide Heziketan gertatzen da. Iaz Araban %0, Bizkaian %13, Gipuzkoan %24 eta Nafarroan %3 izan zen euskarazko eskaintza Lanbide Heziketan. Iparraldeko daturik izan ez arren, denok dakigu egoera askoz okerragoa dela.

Azken urteetan zerbitzu aurreratu bada ere, ez dago jarraipena ziurtatzeko plangintzarik. Bestalde, irakasle-egoera arazo handia da; aurtengo plazen antolaketan %20ra ere ez da iristen plaza euskaldunen kopurua.

Nahiz eta euskarazko gelak eratzeke nahiko euskaldun egon, eredia aukeratu duen norbait egotea nahikoa da gainontzeko guztiei aukeraturako hizkuntza eredia aldatzeko.

Gaur egun igeltsero, mekaniko, arotz... izan gura duen gazteak ez dauka lan makala euskarazko heziketa emango dion ikastetxe bat bilatzen!

Horren guztiaren aurrean, matrikulazio garaia den honean, Euskal Irakaskuntzaren aldeko ekimena zenbait ekintza burutzen ari da. Ekimen hau herriko ikastetxe ezber-

## GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

### Ostirala, 9

• Amezua, Santa Marina

### Larunbata, 10

• Zabala, Zarugalde

### Igandea, 11

• Ruiz, Maalako Errabala

### Astehena, 12

• Morales, San Andres

### Asteartea, 13

• Azkoaga, Ferrerías

### Asteazkena, 14

• Azkoaga, Iturriotz

### Osteguna, 15

• Korkuera, Musakola

*Sili Sili*

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 81 82

**M**

**MEMESA**  
Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

dinetako hainbat guraso, irakasle eta ikaslek osatzen dugu eta kanpaina puntual horretan AED, AEK, EHE eta LABen lan-kidetza ere izan dugu.

Ekainaren lein Lanbide Heziketa euskaraz eskatzeko asmoz, sinadurak bildu genituen eta ekainaren 9rako, aldiz, kale agerraldirako deia egin dugu. Euskal Irakaskuntzarentzat mugarik egon ez dadin, zatoz ostiralean arratsaldeko 19:30ean Seber Altubera.

*Euskal Irakaskuntzaren  
aldeko ekimena*

### MENDI IBILALDIA

**D**enbora asko daramagu gure ustez Arrasate jasangarriarekin zerikusirik ez duen gai batekin: harrobien ugaritzearekin. Gipuzkoan dauden hamasei harrobietatik hiru gure herrian daude eta, seguru asko, aparteko onura aterako diete egokitu zaizkigun azpiegiturallan faraonikoei esker.

Naturaren lege logikoak behin eta berriz alde batera utzi eta produkzioan oinarritutako bizimodua daramagu. Bizi-kalitatearen kaltetan ekimen pribatua bultzatzen duen sistema da gurea eta jakin badakigu sistema horren helburua aberastasuna dela eta apurka-apurka, baina etengabe, "aurrerapena"ren xede nagusia, guztion gogobetatsuna alegia, alde batera uzten duela. Horrek guztiak, dena kutsatzeaz gain, aurrera egiteko beste modurik ez dagoela sinestera eramaten gaitu.

Horrela, bada, sarritan, elementu jakin batzuk, aridoen gehiegizko produkzioa esaterako, ez ditugu ikusten bide, energia edo kontsumoko politika handien kate-maila moduan.

Ondorioz, ez gara harri-

tu behar ingurumenaren arazoarekiko kontzientziazte-prozesuek erritmo ezberdinak dituztelako; izan ere, mintzagai ditugun arazoen aurrean, zuzenean bizi duenak eta beste pertsona batek duen pertzepzioa ez da berdina. Horixe da Garagartzako eta San Josepeko auzotarrei gertatzen zaiena: urteak daramatzate egoera salatzen, baina oraindik ez dute inolako emaitzarik jaso. Dena dela, ez dugu ahaztu behar denok ere galtzen ateratzen garela harrobi horiek: zarata, hautsa, erretenen poluzioa, lurzorua galtzea, baliabide hidrikoak suntsitzea, fauna eta flora desagertzea, produktu arriskutsuak isurtzea, berritzen ez den baliabide bat (kare-harria) galtzea eta paisaia horren hondamena, ezinezkoa baita leheneratzea.

Bestalde, ez da ahaztu behar kokapena. Harrobieta-ko bi, San Josepe eta Kobate, hiriguneetatik 2.000 metro baino gutxiagora daude, legearen kontra, beraz. Era berean, Kobate, Leze Txiki monumentu arkeologikoaren ondoan dago eta Kanpanzar Udalatxan hegalean. Horrela, bada, inolako beldurrik gabe esan dezakegu harrobiak halako tokietan egoteak ingurumenarekiko sentikortasun-maila txikia erakusten duela.

Adierazitako guztia egoeraren berri emateko nahiko ez bada ere, esango dugu horiek guztiek berez nahikoa irekiak ziren legeak hautsi egin izan dituztela historian zehar eta orain arte abisuak

baino ez dituztela jaso.

Zer egingo da orain Kanpanzarko harrobiak ustiapenerako ezarrita dagoen 700 metroko muga pasatu duela kontuan hartuta?

Egokia al da harrobi horrek Udalatxerako bidearen zati bat hartzea eta desagertaraztea?

Uste dugu, adierazi dena nahikoa arrazoi dela Kanpanzar eta Kobate ixteko eskatzeko.

**KONTUZ** San Joseperekin! Izan ere, entzun dugunez, birmoldaketarako Udalarekin sinatu den hitzarmenaren arabera, industrigune bihur daiteke. Gure ustez, San Josepeko auzotarrek nahikoa sufritu dute eta badaude beste inguru batzuk horretarako egokiagoak.

Udalak atera bitza hauts artetik hedapenerako eta aisialdirako helburua duten proiektuak.


Harrobiek izugarri murrizten dute gure bizi-kalitatea eta ingurumen-ondarearen zati handi bat atzera bueltarik gabe hondatzen duten proiektuen barruan sartzen dira. Hori dela eta, hiritarrok behar bezalako eztabaida eta hausnarketa eskatu dizkiegu gure ordezkariel!

Mendi-ibilaldia egingo da ekainaren 10ean, 09:00etan Portaloitik irtenda.

*Javier Abalde*

### Zuzenketa:

Otalora kaleko aparkalekuen proiektua oraindik eztabaidatzen ari direla jakinarazi digute Arrasateko Udaletik. Beraz, proiektua ez dago onartuta oraindik, guk iragarritako moduan.



Ferreries. 943 79 87 62

### ZUBIZARRETA LANTEGIAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 15 65

### Monte taberna

Maalako arrabala, 11  
Tel.: 943 79 20 56

### Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 22 70

**USTEAK USTE**

*Mondragoetarrek diru gehiago dute?*

**J**oan den astean, GOITBn, Arrasateko taxilariek legeak agintzen duena baino gehiago kobratzen dutela esan zuten. "Arrasatek Aretxabaletara legez 800 pezeta izan beharko litzateke, baina Arrasatekoek 1.000 pezeta kobratzen dute. Aretxabaletan, oster, legeak agintzen duena: 800 pezeta. Herri arteko bidaletan Arrasateko taxilariek bandera jaisteagatik 358 pezeta kobratu beharko lukete, baina 550 pezeta kobratzen dute".

Dirudienez, herriko taxilariek lana segurtatuta daukate, enpresentzat egiten dituzten zerbitzuekin. Hori dela eta, herritarrentzako zerbitzua garestiagoa baldin bada, nori axola zaio? Antza denez, udal ordezkariak ere ez zuten horren berri eta inork ez daki noren ardura den tarifa horiek kontrolatzea.

Kontuak kontu, taxi geltokian taxi bat aurkitzea kostatzen denaz gain, gehiegikeria horiek jasan behar dituztela taxien erabiltzaileak.

Mondragoetarrek diru gehiago dute, bada, horrelakoak egiteko?

Marijo Deogracias



**Euskal Eskola Publikoa**

\* Julia Monge

**E**uskal Eskola Publikoaren Guraso elkarten Federazioek 1992tik aurrera urtero jai bat antolatu dute Eskola Publikoaren gizarte irudia indartu eta honen kalitatea aldarrikatzeko asmoz.

Jai honen lehenengo edizioa 1992ko maiatzaren 31n Donostiako hipodromoan izan zen. Gipuzkoako herrialdera murriztutako jai bezala hasi zena denboraren poderioz Euskal Herriko eskola elkarte osoaren jai bihurtu da. Hori dela eta, jaiaren ospakizunak urtetik urtera lurralde historiko ezberdinen hiriburuetan txandakatuko dira.

2000. urtean, Euskal Eskola Publikoaren aldeko 9. jai ospatuko dugu. Anoeta izango da berriro jai honen eszenatokia, ekainaren 11n.

**Helburuak:** Hain tamaian eta garrantzi handia daukan Euskal Eskola Publikoaren jaiaren ospakizun honen helburuak honako hauek dira:

1.- Euskal Eskola Publikoak duen irudi publi-

koa indartzea eta kalera ateratzea.

2.- Egungo euskal gizarteari Euskal Eskola Publikoak eskaintzen dion erantzuna azpimarratu eta aztertzea.

3.- Euskal Eskola Publikoaren kalitatea aldarrikatzea.

4.- Ikasleen Guraso Elkarte guztiak eta eskola elkarte jaiaren inplikatzeko.

5.- Jai bera elkargune bilakatzea, kalitatezko eskola baten alde borrokatzen jarraitzeko indar berriak hartzen.

**Antolatzaileak:** Urtero egiten den Euskal Eskola Publikoaren jai honen anto-

“  
Geroa gure seme-  
alabentzat da;  
geroari BAI esanez, euren  
alde jokatzeko dugu  
”

latzaileak Euskal Herriko guraso elkarte guztiak badira ere, jai egiten den herrialdeko elkarte da arduradun nagusia.

Aurten, Donostiari dagokio jai honen eszenatokia izatea, beraz BAIKARA Gurasoen Elkartearen Federazioari dagokio antolakuntzaren pisu gehiena.

**Leloa:** Aurtengo Euskal Eskola Publikoaren bederatzigarren jai honetarako "Esan bai geroari, geuria" leloa aukeratu dugu. Esan bai geroari geroa euskalduna delako, geuria delako.

Geroa gure seme-alabentzat da; geroari BAI esanez, euren alde jokatzeko dugu; BAI Euskal Eskola Publikoari, aukerarik onena delako: kalitatezkoa, denona eta euskalduna. Euskal kultura bultzatzen dugu eta euskaraz ezagutu nahi dugu gure gizartea, gure hizkuntzaren normalkuntzarako bidea jorratuz.

**Jai egunean egingo diren ekintzak:** Goizeko 10etatik gaueko 8etara bitartean jardueren egitaraua prestatuko da, etenik gabe eta eszenatoki desberdinetan: musika ekitaldiak, kale animazioa, herri-kirolak, dantzak, bertsolariak, puzgariak, antzerkia, pailazoak, jolasak, lantegiak eta abar.

EKAINAREN 11N GEROA GEURIA DELAKO DENOK ANOETARA!!

\* Musakola Herri Eskolako Zuzendaria

**P** Pando Errotuloak  
Gipuzkoa etorbidea 6 (Legarre Pabiloia)  
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Ibilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniola
- Señalizazioak
- Lonak
- Erliebedun hizkiak

**UGARTE**  
Industria hornidurak  
Arrasate pasealekua  
Tel.: 943-79 83 96 / 943-79 23 00  
Faxa: 943-793412

# Giroa jarraitu duzu?

*Joan den igandean amaitu zen Italiako itzulia*



**Julian Fernandez**  
(45 urte)  
Langilea

Ordu horretan lo egoten naiz; okina naiz eta halabeharrez ordu horretan lo egiten dut.



**Jose Martin**  
(58 urte)  
Langilea

Ez. Gustatzen zait txirrin-dularitza, baina ez ditut lasterketak segitzen. Dena dela, batzuetan ikusten dut.



**Piedad Blanco**  
(53 urte)  
Etxekoandrea

Ez. Ez dut gustuko, ez hori ez eta beste kirolik ere.




**Maite Peñakoba**  
(33 urte)  
Langilea

Giroa ez dut jarraitu, umea ez dut ia ikuten eta aprobetxatu egiten dut. Irratiz agian zerbait, baina oso gutxi.



**Iker Moral**  
(19 urte)  
Ikaslea

Ez. Ez zait gustatzen. Ez dut jarraitzen horrelakorik.



**Ander Torrecilla**  
(8 urte)  
Ikaslea

Ez, ez dut ikusi, bakarrik filmak ikusten ditut. Baina, batzuetan lasterketak ere ikusten ditut.



**Noemi Sierra**  
(11 urte)  
Ikaslea

Ez. Gustatzen zait, baina ez dut jarraitu. Agian futbola gehiago ikusten dut, baina hori ere gutxi.



**Elena Olalde**  
(36 urte)  
Etxekoandrea

Ez naiz zalea. Orokorrean, kirolak ez ditut jarraitzen.

## Focus TDdi

Injekzio zuzena  
**1.975.000 pta.**

Prever plana  
eta deskontuak barne

**MUGARRI**

943 79 07 44

# GORKA

ILEAPAINDEGIA

**ORDUTEGIA:**  
Asteleheneran itxita.  
Asteartetik ostiralera:  
09:30 - 20:00  
**Larunbatetan:**  
08:30 - 14:30

**SOLARIUMA**

Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tel.: 943 77 13 78

## TTUKUN

Fotokopiak  
Liburu josteak  
Fotokopiak koloretan  
Planoen kopia  
Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62

# 9 ostirala

■ ZINEMA

*Acordes y Desacuerdos*, 19:00-22:00, Alai zineman.

■ IRAKASKUNTZA  
EUSKARAZ

Kale agerraldia, Seber Altubetik, Euskal irakaskuntzaren aldeko ekimenak antolatuta, Lanbide Heziketa euskaraz eskatzeko. 19:30.

■ BARON ROJO JAMEN

*Baron Rojo, Muro* eta *Tierra de Nadie* taldeen kontzertua. Bergarako Jam aretoan, 22:00. Sarrerak 1.500 pezetan.

# 10 larunbata

■ ZINEMA

*Pitch Black*, 17:00-19:30-22:00, Alai zineman.

■ HARROBIEN AURKA

Harrobiei aurkako mendi buelta egingo dute mendizale eta ekologistek. Portaloitik irtengo dira, 9:00etan.

■ OTOITZALDIA

Arrasateko Kristau Elkarateak otoitzaldia egingo du Espiritu Santuaren jaia ospatzeko. Herritar guztiak daude gonbidatuta. 21:00etan, Kontzezionisten komentuan (Udalara bidean).

■ ANTZERKIA

Getxoko Antzerki Eskolak *El Compromiso* lana taularatuko du. Amaia antzokian, 21:30.

■ DISC-JOCKEYAK  
JAMEN

Begarako Jaiak direla eta, Dance jaialdia izango da Jamen, hiru disc-jockeyren eskutik.

# 11 igandea

■ ZINEMA

*Pitch Black*, 17:00-19:30-22:00, Alai zineman.

■ MENDI MARTXA

Aretxabaletako I. Mendi Martxa goizeko 08:00etan aterako da herriko plazatik. 28 km.ko ibilbidea izango du eta izen ematea egunean bertan egin daiteke, 07:15eatik aurrera.

# 12 astelehena

■ ZINEMA

*Pitch Black*, 17:00-19:30-22:00, Alai zineman.

■ ENTSEGUA PLAZAN

Herriko dantza taldeetako umeek herriko plazan egingo dute entsegua, jendaurrean. 18:30.

# 13 asteartea

■ ZINEMA

*Pitch Black*, 17:00-19:30-22:00, Alai zineman.

# 14 asteazkena

■ KONTZERTUA

Ikasle helduen kontzertua izango da Arrasate Musikaleko Areto Nagusian. 19:00.

# 15 osteguna

■ ZINE-KLUBA

Ventura Pons zuzendariaren *Amigo/Amado* filma eskainiko da. Amaia antzokian, 21:30.

■ PERKUSIOA

Perkusio kontzertua izango da Arrasate Musikaleko Areto Nagusian. 20:00.

■ TESTAMENT

*Testament* taldearen kontzertua izango da Bergarako Jam aretoan. 21:00.

**Etxebizitzak salgai Antzuolan**  
90m<sup>2</sup> erabilgarriak  
**20.000.000 PTA**  
Lehen mailako materialekin egina. Leku ezin hobea.  
Informazioa eta salmenta: **KOROSTI INMOBILIARIA.**  
Tel.: 943 73 05 25

**BASOLANAK**

- Garbiketak
- Landaketak
- Inausketak...

Belatze Mendi s.l.  
Tel.: 943 79 36 82 / 677 71 93 31  
ARRASATE





Asteburu honetan, Euskal Eskola Publikoak bere IX. Jaia ospatuko du, "Esan bai geroari, geuria" leloarekin. Anoetan izango da jai nagusia, igandean, baina zapatuan Arrasateko Erguin Herri-Eskolan izango da ospatzeko aukera. Goizeko 10etatik aurrera, musika, herri-jolasak, kirolak, puzgarriak, jan-edanak... izango dira.

## Tratu txarren inguruan

Emakume Sailak, Bilboko Clara Campoamor elkar-tearen eta tratu txarrak ikertzeko batzordearen laguntzarekin, tratu txarren inguruko mintegia antolatu du astelehen eta martitzenerako.

Hainbat aditu eta profesionalak emakumeen aurkako tratu txarren ezaugarri psikologiko eta juridikoak aztertu eta aholkuak emango dituzte.

Eskualde Ospitalean, 11:00etatik 15:00etara.

### ■ HAUR EGUNA

Ekainaren 18an Haur Dantzarien Eguna izango da. Etxean haurrak hartu nahi duenak izena eman beharko du AEDn edo Hire liburu dendan, ekainaren 12a baino lehen.

### ■ BAIMEN BEREZIA

Sanjoanak direla eta, soldadutza egiten ari diren arrasatear guztien senide eta adiskideei dei egiten die Alkatetzak euren helbidea eta eskutitza zuzendu behar zaion nagusiaren izen-abizenak jasotzeko. Eskutitz bana bidaltzeko asmoa dute, jaietarako baimen berezia eman diezaieten eskatuz.

### ■ ODOL EMAILEAK

Hilaren 12 eta 13an Arabako Odol Emaileen Elkarteak Mondragoeko anbulatorioan izango da, odola biltzen. 16:00- 20:00.

### ■ 1949KOEN JAIA

1949an jaiotakoek urteroko bilera egingo dute uztailaren 8an. Izen ematea ekainaren 17a baino lehen Lore edo Zabaleta lurrindegietan, 5.000 pezetan.

### ■ ERAKUSKETAK

Ekainaren 25a arte, Ana Gorosabelen pintura erakusketa izango da Harresi Aretoan. Lanegunetan: 18:00-20:00; larunbat eta jai egunetan, gainera, 12:00etatik 14:00etara. Bestalde, San Andreseko Toki-Eder kafetegian Antonio Arrillaga bergararraren erakusketa egongo da hil osoan.

### ■ AITON-AMONEI OMENALDIA

80 urtetik goraentzat ekainaren 24an Udalak aiton-amonon omenaldia antolatu du. Izen emateko NA-a aurkeztu ekainaren 16a baino lehen.

### ■ ATXARTERA IRTEERA

Besaidek antolatu du ekainaren 17rako. Izen ematea ekainaren 14an Besaiden. 19:30-20:30.

### ■ ARETXABALETAKO EUSKALTEGIA

Irakasle lanetan aritzeko lan-burtsa ireki du Aretxabaletako udal euskaltegiak. Deitu ekainaren 22an baino lehen 943 79 21 68 zenbakira.

- X Ezkontzak
- X Bataioak
- X Jaunartzeak
- X Enpresa bazkariak eta lagunartekoak



P A R K I N A E T A T E R R A Z A

# BASTER-ALDE

J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 24 58

## ARRASATEKO KOMIKI EZ SEXISTEN III. LEHIAKETA

Lanak aurkezteko epea 2000ko uztailaren 21a

### SARIAK

- Lehen saria: 90.000 PTA
- Aukera berdintasuna lantzen duena: 60.000 PTA
- Emakume egilearentzat: 60.000 PTA
- Gazte saria: 30.000 PTA
- Euskara Saria: 30.000 PTA (metakorra)



ARRASATEKO UDALA Emakume Saila ■ Tel.: 943 79 41 39

mezak

**San Joan parrokia**

**Larunbata**

19:00 (elebiduna)

**Igandea**

09:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz)

12:30 (elebiduna)

**San Frantzisko eliza**

**Larunbata**

19:00 (elebiduna)

**Igandea**

09:00 (euskaraz)

10:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

19:00 (erdaraz)

**Uribarri parrokia**

**Larunbata**

19:00 (elebiduna)

**Igandea**

11:30 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

**San Andres eliza**

**Larunbata**

19:00 (elebiduna)

**Igandea**

10:00 (elebiduna)

11:00 (euskaraz)

12:00 (erdaraz)

13:00 (erdaraz)

**Santa Teresa eliza**

**Larunbata**

19:00 (elebiduna)

**Igandea**

10:30 (erdaraz)

11:30 San Isidron (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

**Santamañako eliza**

**Jaiegun bezpera eta larunbata**

19:00 (erdaraz)

**Igandea**

12:00 (erdaraz)

**Eguraldiaren aurreikuspena**

Donostiako Meteorologia Zentrua



**OSTIRALA 9**

Oso lainotua. Euria egingo du eta tar-tekaekaitzak. Freskату egingo du. Ipar-sartaldeko haizeak ahulkijoko du.



**LARUNBATA 10**

Oso lainotua. Goizean zaparradak; arratsaldean ere euria, baina ahulago. Tenperaturak apur bat behera egingo du. Sartalde aldeko haizea.



**IGANDEA 11**

Oso lainotua. Euria egingo du. Tenperaturak apur bat gora egingo du. Iparraldetik haize xumea.

**hildakoak**

- Maria Olagain Txaragain, maiatzaren 11n. 89 urte.
- Ana Jesus Uriarte Askasibar, maiatzaren 15ean. 50 urte.
- Irene Arregi Gaztelurrutia, maiatzaren 16an. 95 urte.
- Francisco Arana Argarate, maiatzaren 18an. 92 urte.
- Juliana Bicente Martin, maiatzaren 20an. 87 urte.
- Luis Balanzategi Zubizarreta, maiatzaren 26an. 83 urte.
- Adoracion Poveda Rodriguez, maiatzaren 26an. 82 urte.
- Felisa Agirre Balanzategi. Ekainaren 3an. 95 urte.
- Jose Maria Iturbe Alvarez. Ekainaren 4an. 58 urte.

**jaiotzak**

- Eider Ruiz Mena. Maiatzaren 11n.
- Ander Gomez Etxebarria. 17an.
- Markel Mendizabal Agirre. 20an.
- Jokin Navaiz Lasaga. 18an.
- Jone Garcia Gil. Maiatzaren 9an.
- Leire Ugarte Urkizu. 20an.
- Eleder Nogueiras Ruiz de Azua. 24an.
- Julen salazar Torga. 25ean.
- Ibai Fernandez Blanco. 24an.

**ezkontzak**

- Roberto M. Iria eta Zorione Arana, maiatzaren 13an.
- Gorka Otxoa eta Sara Izagirre, maiatzaren 20an.
- Robeto Diaz eta M. Mercedes Morales, maiatzaren 20an.
- Juan Antonio Baena eta M. Teresa Mendizabal, maiatzaren 27an.
- Ignacio Carmona eta Victoriana Sanchez, maiatzaren 27an.
- Xabier Astondoa eta Placeres Benitez de la Cruz, maiatzaren 27an.
- Enrique Romero eta M. Asuncion Berrocal, maiatzaren 27an.
- Jose Angel Etxebarria eta M. Pilar Iriarte, maiatzaren 27an.
- Guillermo Goyenaga eta Aitziber Saiz, ekainaren 3an.

**eskelak**

**Eskelak, esker onak eta urteurrenak jartzeko tartea**

**Azken eguna: asteazken eguerdira arte**

Tel.: 943 71 23 91

**LEHENENGO URTEURRENA**



**Sebastian Uribesalgo Bengoa**

Urteurren meza, San Andreseko Asuncion elizan 2000.eko ekainaren 11n, 11:00etan egingo da.



Aurrez esker ona bertaratzen zareten guztioi. Bere emazteak eta familiak.



astea bi hitzetan

■ Txatxilipurdik dena prest

Dagoeneko, 500 bat haurrek eman dute izena Txatxilipurdik antolatutako udalekuetan parte hartzeko, baina antolatzaileek oraindik beste 200 espero dituzte.

Bi aukera eskaintzen dira: udaleku irekiak eta itxiak. Udaleku irekietan gazteak etxera joaten dira lotara. Bereziki, lehenengo mailatik seigarren mailara arteko haurrei daude zuzenduta. Itxietan, berriz, gazteek kanpoan pasatzen dituzte hainbat egun, Garaioa, Oriora, Nafarroako Beintza herrira

edo Asturiasko Posada de Llanesera joateko aukera izango da aurten, hain zuzen ere. 10 urtetik 16 urtera artekoiei daude zuzenduta udaleku itxi hauek.

Begiraleei dagokienez, 60 bat arituko dira udaleku irekietan eta 15 bat itxietan.

Bai udaleku itxiak zein irekiak uztailean izango dira.

■ Arrandegietako hondakinak

Debagoieneko Mankomunitateak eta Arrasateko Udalak bi edukiontzi jarri berri dituzte arrandegiek sortzen dituzten hondakinak biltzeko. Akei

erraustegiaren ondoan daude. Bi huez gain, beste bostipintzeko asmoa dute.

Mankomunitateak egu-nero husten ditu edukiontzi hauek; modu horretan, arrain saltzaileek nahi duten unean bota ditzakete hondakinak.

Orain arte, arrandegiek kaleko edukiontzietan uzten zituzten zaborrak. Baina, zapatua da arrain gehien saltzen den eguna eta egun horretan ez da zabor bilketarik egiten. Horren ondorioz, asteburu osoan kaleko zaborrontzietan izaten ziren arrain hondakinak.

■ Garagardoa nagusi

Jende ugari elkartu zen asteburuan herriko plazan, Arrasateko Errugbi taldeak antolatutako Garagardo Festan. 450 metro karratuko karpa handi batenpean, Alemaniako ohiturak izan ziren nagusi: saltxitxak, oilaskoak, saiheskiak eta nola ez, garagardo pitxarkadak barra-barra banatu ziren jendearen artean.



“ Gaixotasuna goiz harrapatzen bada, gaixotasunaren eraginak gutxitu daitezke. Eta orduan gaixoaren eta zaintzaileen egoera hobetu egiten da. Alzheimerra osasun arazo bat baino gehiago da, arazo sozialak ere hor daudelako.

— Batzuetan, familia leporaino egiten da, eta zentro batera eramaten da gaixoa. Tope horretara ez iristeko baliagarria da Alzheimer gaixotasunari buruzko gida”.

EDURNE ETXABE

Euskaldunon Egunkaria (2000.6.4)

Arrasateko **Batasuna Batzorde Eragileak** gonbidatzen zaitu, Batasunaren prozesuko lehenengo herri edo auzo batzarrera ekainaren 15ean, 19:00etan Monterronen.

euskalherriko ezkerdarien

**batasuna**

# Leihoak aldatzeko aukera gehiago

Mondragoeko alde zaharreko etxebizitzetako leihoak aldatzeko erraztasun gehiago ematea erabaki du udalak. Bi arrazoiengatik hartu du erabakia: alde batetik, orain arte indarrean egon den araudia zaharkitua geratu delako, eta, bestetik, jendeak gero eta eskerra gehiago egiten dituelako.

Etxebizitza motak zehazten du leihoak aldatzeko aukera, eta baita leihoak nora begira dauden ere.

Etxebizitzaren balioa txikia denean, errazago aldatu ahal izango dira. Kasu horretan, etxebizitzako komunitateak erabakiko ditu aldaketaren baldintzak; aldiz, ez da beharrezkoa izango bizilagun guztiak batera egitea.

Eraikinaren balio arkitek-



Balio arkitektonikoa dutenean aldaketak txikiagoak izango dira.

toniko, historiko edo artistikoa handiagoa denean, aldiz, aldaketak txikiagoak izango dira. Balio handikoen leihoak, bere horretan utzi beharko dira eta erdi mailakoak aldatu ahal izango dira, beti ere bizilagunek batera eginez gero.

Antzeko sailkapena egi-

ten da barrura begira dauden leihoekin. Mota guztietako etxebizitzetako leihoak aldatu ahal izango dira. Baina kasu horretan ere, badaude jarraitu beharreko irizpideak.

Informazio gehiago nahi duenak udaleko Hirigintza Sailera jo dezake.

# Termiteen aurkako tratamendua

Gipuzkoa Etorbideko 47an termiteak antzeman ziren urtebete dela. Orduetik hona, egoerak antzera samar segitzen du; are gehiago, 49. zenbakiko atarian ere egon daitezkeela susmatzen hasi dira hango bizilagunak. Auzotarrek txosten bat aurkeztu zuten udalean, baina udalak informazio gehiago eskatu die; beraz, beste txosten bat egingo da. Horren emaitzek termiteak daudela baieztatuz gero, udalak gomendatuko die bai 47. atarikoei zein 49.ekoei, batera egin dezatela termiteen kontrako tratamendua: errekarara jotzen duen hormetan tranpak jartzea janari pozoiidurekin. udala prest egongo litzateke laguntzeko.

# MCCk nazioartean inbertituko du



Joan den astean, MCCk izan zituen irabazien berri eman genizuen. Antonio Cancelok prentsaurrea egin zuen horixe azaltzeko, baina, horrez gain, MCCren nazioarteko plan estrategikoaren berri ere eman zuen. 2000-2004. urte bitartean garatuko du Indutri Taldeak. Planak oinarritzko merkatuetan presentzia sendotzea du helburu. Horren ara-

bera, Indutri Taldearen salmenten %57 baino gehiago kanpoan egindako salmentak izango dira 2000.ean.

Gaur egun 22 lantegi ditu Taldeak atzerrian, eta 2004rako 57 izatea espero du, hauetatik 18 Automoziokoak. MCCko Indutri taldeak produzituko duen %16 egingo dute nazioartean eta langileriaren %23 arituko da kanpoko lantegi horietan.

# Atxiloketa harrobian

Istiluak izan ziren pasa den ostiralean San Josepe harrobian.

Herritar talde batek harrobiaren aurkako protesta egin zuen, harrobiak eragiten duen kaltea salatzeko. Tartean, hiru pertsona harrobiaren sarreran kateatu ziren sartu-irtena galerazteko. Horren ondorioz, Ertzaintza etorri zen.

Kateak moztu eta gero, kateatu zirenen datuak hartu zituzten. Gauza bera egin zuten pankartaren atzean zeudenekin. Azken hauek ukatu egin ziren identifikazioa eta, orduan, Ertzaintzak atxilotu egin zuten. Atxiloketa uanean eta ondoren tentsio unea izan zen protesta egile eta Ertzaintzaren artean, baina azkenean ez zen bestelakorik gertatu. Atxilotua



libre utzi zuten pare bat orduz polizia etxean izan ondoren.

Harrobien gaiarekin lotuta, zapatuan amaituko da harrobien aurkako kanpaina. Mendi irteera izango da goizeko 9:00etan Portaloitik. Arrasate-Kanpanzar-Besaide-Kobate-Arrasate ibilbidea egingo dute ekologistek.

## Solidarioak epaitegian



Euskal Presoekiko Elkartasun talde batek protesta ekitaldia egin zuen Bake Epaitegian, asteazkenean: bi lagun atean kateatu ziren. Modu hone-tan, Sevillan "giraldilla"-z jantzita agertu ziren solidario taldearen kontra egiten ari diren epaiketa salatu nahi izan zuten, eta baita Espainiako espetxe-legea betez gero, kalean egon beharko luketen 97 euskal presoaren egoera salatzeko ere. Ertzaintzak, nortasun agiriari eskatu ondoren, kateak apurtu zizkien. Era berean, desordena publikoak

eragitea leporatuko zaiela jakinarazi digu Ertzaintzak.

### GREBALARIAK, ONDO

Protestagileen artean, gose greba egiten dabiltzan bi mondragoetar zeuden. Gaur hamargarren eguna bete dute Mondragoeko Osoko Bilkura aretoan, baina, hala ere, indartuta daudela adierazi dute. Medikuen bisita egunero izaten dutela ere jakinarazi digute, beraz, zaintza aldetik, ondo daudela. Aurrera segitzeko gogoz ere azaldu dira Mondragoeko bi solidarioak.

## Hilketa gaitzesten



Juan Jose Ibarretxe lehen-dakariaren deiari erantzunez, kale bilkura izan zen Mondragoen, Durangon izandako hilketa salatzeko. Herritarren artean EA, EAJ, PSE-EE eta EB alderdieta-

ko ordezkariak izan ziren, eta baita ELA sindikatuko kideak ere.

Iluntzean beste kale bilkura bat izan zen, Bakearen Aldeko Koordinakundeak deituta.

## Gernika zumardia udazkenerako

Arrasateko Udalak 2.250.000 pezetako isuna jarri dio Brues enpresari, ez dituelako amaitu ezarritako epean Gernika oinezkoen pasealekua, eta Obenerrekako igarobidea. Hiru hilabeteko atzerapenarekin dabil enpresa.

Hala ere, Brues konpainiak urriaren 16rako lanak amaitzeko konpromisoa hartu du. Beraz, Bruesek amaituko ditu lanak. Alde bate-tik, Monterron eta Musakolako kiroldegia lotuko dituen pasealekua amaitu eta, bestetik, Obenerrekako igarobi-dea egingo du.

### OBENERREKA

Igarobide horri dagokionez, ikutu batzuk egin beharko zaizkio azken proiektuari, izan ere, hainbat protesta jaso dira aldapa handiegia zuelako.

Galizia kaleko bizilagunek, bestalde, irteera bat izango dute, kiroldegi alde-ra, Santamaina kalearen bukaerako plazatik, hain zuzen ere.

Bide hau egiteko 30 milioi pezetako aurrekontua du Udalak. Brues enpresak berak egingo du eta, pasealekua bezala, urriaren 16rako bukatuta egongo da.

## Zubia San Prudentzian

Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu egin du Bergarako Udalak bidalitako zuzenketa. Horren ondorioz, San Prudentzioko bidegurutzean egin beharreko lan proiektua aldatu eta biribil bat beharrean, zubi bat eraikitzea erabaki dute. Oraingoa baino 30 bat metro Bergara aldera kokatuko da eta norabide bakarrekoa izango da, Arrasate-Oñati norabide-koa, hain zuzen ere. Horrek esan nahi du Arrasatetik Bergarara goazenok, Oñati aldera sartu beharko garela lehengo zubitik, eta berriz ere Bergara aldera irten, bigarren zubia zeharkatuz. Oñatikoez, berriz, bigarren zubia erabili-ko dute bai Mondragoera eta baita Bergarara egiteko ere.

Lanak datozen hilabetee-tan hasiko dira eta 444 milioi pezetako aurrekontua izango dute.

## Tratu txarrak

Emakumeen aurkako indarkeria maiz etxearen barruan gertatzen dela eta, udaleko Emakume Sailak tratu txarrei buruzko mintegi bat antolatu du Mondragoen. Bilboko Clara Campoamor elkartearekin eta Emakumeek Jasandako Tratu Txarrak Ikertzeko Batzordearekin batera antolatutako ikastaroa da hau. Osasun arloko profesionali zuzendutakoa izango da eta Eskualdeko Ospitalean emango da.

Kontuan hartuta tratu txarrak jasan dituen emakume askorekin harremana duen pertsona bakarra sendagilea dela, beharrezkoa izan da sendagile honi informazioa ematea eta horrexegatik antolatu da mintegi berezi hau. Osasun arloko profesionalen sentsibilizazioa eta interbentzioa bultzatu nahi da modu horretan.

Mintegia datorren ekainaren 12 eta 13an izango da eta hainbat gai jorratuko dira.



## 47KO KINTOAK

47ko kintoek joan den zapatuan, urteroko bilera ospatu zuten 51. aldiz. 12:00etan meza izan zuten, San Joan Parrokian, eta ondoren, bazkaltzera joan ziren Udalpera 18 gizon. Urte askotarako!

## IKASTOLAREN FESTA

Arrasateko Ikastolak jaialdi polita izan zuen zapatuan, Ferixalekuan. Herri-kirol erakustaldia izan zen, eta ondoren, indarberritzeko, mokadutxo Andaluzia, Extremadura, Galizia eta Euskal Herriko postuetan.



## HORMIRUDI LEHIAKETAKO IRABAZLEAK



Zaborraren problematikaren inguruko kanpainaren barruan, hormirudi lehiaketa egin zuen Ingurugiro Eskolak, "50 urte barru, zer?" leloarekin. San Viator Txikiko Gorka Perez, Aritz Jauregi eta Adrian Remirez izan dira irabazleak. Motxila ekologiko bana irabazi dute.

## ARIZA-BATERA



Orain bi domeka, 80 Arizabaletar elkartu ziren Arantzazun, bazkaria egiteko. Nagusienak, Martak, 98 urte ditu, eta gazteenak, Beñatek, 2.

Gainera, Kolonbia-tik lau Arizabaletar etorri ziren, espreski bazkarian parte hartzeko.

## GURE BETERANOAK

Jai giro apartaz gozatu zuten Arrasateko nagusiek Erretiratu Egunean. Gure dekanok, 92 urteko Isabel Zabartek eta 100 urteko Candido Moralejak, sari bereziak jaso zituzten; danborradako jeneralaren eta banderadunaren esku egon zen sari banaketa.



## FERIA ESKORIATZAN



Jende ugari joan zen Eskoriatzan egin zen Eskularen eta Baserri Produktuen IV. Ferixara; Jose Arana Ikastolak antolatu zuen.

Aukera ederra izan zen, eta argi geratu zen kalitate kontuetan bertako produktuak eta artisauak ez direla makalak.

**ILE APAINDEGIA**

Alfonso X jakintsua, 1 behea  
(Grupo San Juan)  
Tel.: 943 79 79 65

Bonaventure • Diesel  
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea ARRASATE  
Tel.: 943 79 11 72

Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Otarateko hotz eta beroak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

**HIES  
BERRIA**

Tel.: 943 79 26 99

# Ikatzgintza: oroitzapenean

Udaberriarekin batera, txondorrek barra-barra ikusten ziren sasoi batean Euskal Herriko baserri inguruetan, hauxe izan delako gure arbasoek gizaldietan landu izan duten ekintzariko bat: egur-ikatza egitea.



Txondorra udaberri edo udazkenean egin daiteke.

**Z**ehatz-mehatz, ez dago argi noizkoa den langintza hori; jakina da, Euskal Herriko Brontze-Aroko tresnek adierazten dutenez, metal teknologia asko garatu zela ordurako, eta lehengai horrekin egindako tresnak gero eta arruntagoak zirela. Baina, metala lantzeko bero iturria handia izan behar zen oso, eta segurua da,

historiaurreko siderurgian egur-ikatza erabiltzen zela 1.300 gradurainoko berotasuna lortzeko.

Era berean, ezin dugu aipatu barik utzi, euskal kulturari hainbeste maite dugun ikazkina: Olentzero. Eta ezin ahaztu, noski, Tasio ikazkinaren filma.

Beraz, argi dago gurean ikazkin lanbideak tradizio handia izan duela.

## DESAGERTZEAR

Orain, ordea, apenas ezagutzen dugu ikazkinik. Modernitatea errege den garai honetan, lanbide ugari zaharkituta geratu dira eta, ondorioz, desagerpenerantz jo dute.

Horixe da ikazkinaren kasua. Geratzen diren bakanak ofizioz baino, afizioz jarduten dute.

Hauetako bat dugu Basilio Ugarte aramaioarra. Erretiroarekin batera, ikatza egiten hasi zen 20 bat urte dela: “Bildotsak erretzeko ikatza behar nuela eta, horrelaxe hasi nintzen. Gainera, gustatu egiten zait horretan aritzea eta on egiten dit; badakizu, beti ere ona da zereginen bat izatea”.

8.000 kilo egur batu du Basiliok aurtengo neguan ikatza egiteko. Basoa jotzea esa-

ten zaio egur bilteta honi. Pago egurra erabiltzen du berak ikatzetarako: “artearena da egurrik onena eta gero pagoarena; hemen arterik ez dago, beraz, pagoa erabiltzen dut. Adarrik sendoenak, zaharrenak, ebakitzen dira, berriak utziz, atzera sendotu daitezten”.

## GOITIK BEHERA

Behin egurra batuta, lautada bat prestatu beharra dago, bertan egurra pilatu eta txondorra egiteko. Zulo bat egiten da lautadaren erdian. Ondoren, “alkatea edo erdiko agia” izeneko makila bat sartzen da zuloan (tximinia egiteko makila) eta haren bueltan egurra pilatzen joaten da. Suetxea esaten zaio zulo horri, sutoikia eta tximinia ere bai, zenbait tokitan. Barrualdean, sue-

## LAN TRESNAK

**Eskailera:** txondorrera igo eta jaisteko.

**Pala:** txondor zuloa garbitzeko.

**Eskuarea:** ikatza lurlean zabalteko, hoztu dadin.

**Belaukia:** lurrari ikatz egiteko.

**Ikatz karkoa:** ikatza ateratzeko. Goitik beratzen da.



# asteko langintza

txetik gertuen, egur lodienak jartzen dira eta haren inguruan gero eta meheagoak. Horrela, behetik gora eraikitzen joaten da, menditxo bat egin arte.

“Goroldio eta lurrez estaltzen dut pilatutakoa eta halaxe ixten da ixotu arte”. Hori xe da txondorra.

Izan ere, su eman behar zaio txondorrari ikatza egin ahal izateko; txondorra sutzea edo ixotzea esaten zaio horri. “Barrutik ematen zaio sua. Tximinia zulotik txingarra sartzen da eta behealdea ixotzen da. Indartuz doala, gora igotzen da sua. Orduan, txondorra estali egiten da. Horrela hasten da ikatza egiten, goitik behera”.

Txondorra egosten dagoela esaten da orduan. Halaxe egon behar du 15 bat egunez:



Basilio duela 20 urte hasi zen ikatza egiten.

“Txondorraren tamainaren arabera izaten da; nik neuk 12 bat egun eman ditut”. Basiliok egin duen txondorrak, 14 metroko zirkunferentzia du eta 2,20 metro garai da.

## EGUNEROKO LANA

Egunero egiten dio bisita Basiliok txondorrari, “egunero zaindu beharra dago eta. Ikatza egitea ez da dirudien moduko erraza; niri ere hasieran ez zitzaidan ondo irtetzen. Ikatza lortu baino, gerta liteke egurra erretzea eta ezer ere ez lortzea”.

Azkenengo egunetan, gainera, txondorraren barrualdea hustutzen doa, suak janda: “txondorra gosetu egiten dela esaten da. Orduan, betegarria sartu behar zaio. Egur gehiago sartzen zaio tximiniatik barrura”.

Era berean, erretzen doan neurrian, zuloak egin behar zaizkio arnasa hartzeko eta bizitasuna eta indarra emateko. Ziri zuloak dira hauek; ondo zuloak, Aramaio eta inguruotan.

Eta horrela, poliki-poliki

ikatza egiten doa. Egiten den neurrian, atera beharra dago. Basiliok batutako 8.000 kilo egurrarekin, 1.500-2.000 kilo ikatz egingo ditu.

## ONDOREN, ZER?

Argi dago ikatzaren erregai lanak aspaldi bukatu direla.

Hala ere, oraindik badago ikatza erabiltzen duenik: “Lehen esan bezala, bildotsak erretzeko erabiltzen da; elkarre gastronomikoetatik ere urterro eskatzen didate txuletak erretzeko, eta inguruko baserrietatik ere etortzen zait jendea ikatza erostera. Hala ere, horixe da ikazkinaren lanik zailena: saltzea. Honek ez du jornalik ematen; gainera, oraingo gazteek ez dute mota horretako ogibiderik nahi izaten, nahiko gogorra da eta gainera, ez da goxo-goxoa. Gu, behintzat, beltz-beltz ibiltzen gara txondorretik ateratzen den kearen ondorioz; oraingo gazteek ez dute horrelakorik gura”.

30 bat kiloko zakuetan saltzen du Basiliok ikatza. Dagoeneko saldu ditu zakuz-

kada batzuk, baina baditu saltzeko gehiago.

## ETORKIZUN BELTZA

Lehengai horren etorkizuna, beraz, beltza da, Basiliok dioskun moduan. Bera ezagutzeko aukera izan dugu geuk eta oraingoz, badakigu non lortu ikatza. Dena dela, bera ere nekatu samar dabil: “urteak aurrera doaz eta gero eta ilusio gutxiago dut. Ez dakit zenbat denboraz jardungo dudan honetan”.

Beraz, dagoen artean behintzat, aprobetxatu behar eta ikatz beltzaren irudia oroitzapenean ondo gordetzen badugu, hobe, laster sua egiteko pastilla zuri horiek baino ez baititugu erabiliko eta. ■

## Ubane Madera

**Informazioa:** Bergara aldeko berbak eta langintza zaharrak liburua eta Aramaio Liñatza baserriko Basilio Ugarte ikazkina.



Basiliok 30 kiloko zakukadak saltzen ditu.

# JOSE ANGEL ATXON (GARIBAIEN MEMORIAS EDIZIO ZUZENDIA)

## “Foru ideologia batera”

Jose Angel Atxon Pentsamenduaren Historiako irakasle da Deustuko Humanitate Fakultatean, bere jaioterrian, Donostian. Orain hamar urte, Esteban Garibai Zamalloa historialari arrasatearren irudiek eta lanek harrapatu zuten, eta orduan, Garibairen inguruan aditua da. Arrasatear ospetsu haren “Memorias” en bigarren edizioa zuzendu du, orain-tsu aurkeztu dena.

—Zerk erakartzen zaitu Esteban Garibairengandik?

—Gauza askok. Bere lanek, eta bereziki “memoriek”, Mondragoeko historia eta bere garaiko kultura ezagutzeko informazio bikaina ematen digute, eta horrek historialari moduan erakartzen nau. Baina, bere giza alderdia ez da gutxiagorako. Bere garai-kide gipuzkoarren kasuan ez bezala, Garibairen psikologia bere lanen bidez ezagutu deza-

kegu. Bere ospea oso polemikoa izan da: plagiarioa, sinesbera, fabulazaila edo zurikeriatan zebilena batzuentzat; historialari zehatza, iberriar geneologista punta-puntakoa eta lehen euskal filologoa besteentzat.

—Noraino da fidagarria Garibairen lana bere izaera ezagutzeko?

—Garibaik izan nahi zuen moduan, eta ez benetan zen moduan aurkeztu zuen bere burua memorieta. Lehen pertsonan idatzitako edozein dokumentuk bezala, ez digu objektibotasun ziurtasunik ematen. Hori dela eta, isiltzen duena esaten duena bezain garrantzitsua da. Erretratu psikologikoa, eta ez pertsonala, da bere lana. Gizartearen ondo kokatutakoa, bizimodu zuzenezuzenarekin eta ospe handiko arbasodun gizon bezala aurkeztu nahi zuen berak. Ziur esan deza-

kegu oso pertsona zehatza, erlijiosoa, politikoki konprometitua eta Mondragoekiko eta adiskideenganako leiala zela.

—Badago desberdintasunik Memoriasen bigarren edizio honen eta 1854an Pascual de Gayangosek egin zuten artean?

—Funtsean, guk osorik jaso ditugu Garibairen eskuizkribuak, baina Gayangosek hainbat zati kanpoan utzi zituen. Gainera, bigarren edizio hau adituei eta baita aditu ez diren,

baina interesaturik daudenei zuzendua dago.

—Memoriasek irudikatzen duen euskal gizarteak eta gaurkoak badute antzekotasunik?

—Ez da erraza antzekotasunak aurkitzea, tartean lau mende daudelako, eta guk gizarteak, kultura eta nortasun politikoa oso modu desberdinean ulertzen ditugulako.

Orduan, erlijio batasunak definitzen zuten komunitate politikoa. Erlijio Gerrek kristautasuna



“Euskal erroddun gizataldeek garaian onar zitezkeen formulak aurkitu zituzten euren nortasuna gauzatzeko.”

(IA)

# tu zuen Garibaik”

zatitu zuten, eta ondoren Estatu izango zirenen enbrioiak sortu ziren. Hala ere, sasoi hartan, gaur bezala, euskal errodun gizataldeek garaian uler eta onar zitezkeen formulak aurkitu zituzten euren nortasun sentimenduak gauzatzeko. Horiek izan ziren ondorengo hiru mendeetan iraungo zuen ideologia foralaren hastapenak.

**—Zein izan zen Garibairen garrantzia prozesu horretan ?**

—Garibai ideologia foralaren lehen bateratzailea izan zen, Zaldibiarekin batera: tuba-

lismoa, kantabrismoa, Gaztelako erregearekin hitzarmena, kaparetasun unibertuala... bildu zituen. Hortaz, euskal gizataldeek euren nortasun bateratua azaldu eta monarkia katolikoak zuzendutako herri-taldean leku propioa egiteko prozesuaren gakoa izan zen Garibai. Zentzu horretan, euskal historiografiako klasikoa da Garibai, gure memoria historikoa ulertzeko ondare paregabea.


**—Filologian eta genealogian ere lan handia egin zuen...**

—Bai. Lehen euskal filologotzat du Zubiaurrek. Arlo horretan, komentario etimologikoak, esaera zaharren bildumak eta euskarazko lehen eresiak biltzea azpimarra ditza kegu. Genealogista moduan, F. Borja de Aginagalde aditu handiak Garibairen metodoaren balioa baieztatu izan du. Ondoren etorri diren genealogista batzuek puntuz puntu kopiatu diote, aipamenik egin gabe. *Real Academia de la Historian* erregeen eta nobleen —artean euskal nobleziako hainbat familiaren— genealogia asko eta asko daude, oraindik argi-

taratu gabeak eta apenas ikeritua.

**—Esteban Garibairen inguruko kondaira eta elezhar ugari dago...**

—Jesus de Moyak esan du elezhar horietariko asko Mondragoeko elizak barreiatu zituela, Garibairekin biziki aurrez aurre zeudelako. Baina, frogatu gabeko beste hainbat esames dago; adibidez, Felipe II.aren espia izan zela esaten zen. Gainera, egindako lanak egiteko gazteegia zela eta, plagioa egin izana ere leporatu zioten. ■



**weru®**

**Ate + leihoak**



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2  
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia  
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95  
ARRASATE



*Salterain*

PVC-zko ate eta  
leihoez gain:  
moksetak,  
zoru arinak,  
kortxoak,  
Louverdrape  
kortinak,  
Kortinoba, testila...



## Emaitzak

Etixerat Taberna 5 - AC Surkos 4

Aldibi 5 - Dribling 4

## Finalak

Iarunbata, 10

Zaldibar

15:50 AC Surkos -

Dribling

17:00 Etixerat Taberna -

Aldibi

### EMOZIOA

#### FINAL ERDIETAN

Hauxe bai marka! Aldibik hirugarren aldiz jokatu du Zaldibarko txapelketako finala, eta Etixerat Tabernak ere lortu egin du finalerako sailkatzea.

Joan den asteburuan jokatu ziren final laurdenak. Ikusmin handia egon zen Zaldibarko frontoian eta emozioa ere ez zen falta izan.

15:00etan Etixerat eta AC Surkos aritu ziren aurrez aurre. Partida hau izan zen emozio gehien izan zuena. Lehenengo zatia 4 eta 1 amaitu zen AC Surkos taldearen alde. Eurek irabaziko zutelatzat zirudien, baina bigarren zatian Etixerat taldeak berdindu egin zuen eta, hara: luzapen minuak jokatu behar izan zituzten. Urrezko gola behar zen irabazteko. Etixerat Taberna taldeak ez zuen amore eman nahi eta urrezko gola sartu zuen, irabazteko balio izan zuena.



### Etixerat-en garaipenaren gola



### Jende ugari Zaldibarren

Zorionak, bada, Etixerateko mutilei!

Bigarren partidan, iazko txapelduna bere titulua defendatzeko amorratzen irten zen Driblingen aurka jokatzera. Hau ere azken unera arte ez zen argitu. Launa berdindu zuten eta Inaziok sartutako golari esker, finalerako txartela eskuratu zuen Aldibik.

#### ETXERAT-ALDIBI

Horixe izango da aurtengo Zaldibarko txapelketako finala. Gazteak eta beteteranoak aurrez aurre! Arratsaldeko 17:00etan jokatu da final handia. Aurretik, ordea, 15:50ean, hirugarren edo laugarren tokiak.

**ARRASATE**  **KIROLAK**

Kontzezino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

#### TALDERIK ONENA

Hauexek osatuko lukete, antolatzaileen ustez, txapelketako talderik bikainena.

**Atezaina:** Aner Elortza (Leya)

**Jokalariak:** Urtzi Berasaluze (Etixerat Taberna)\*

Jabi Luengo (DA Iriztu)

Andoni Ozaeta (Branka Taberna)

Kepa Ezkurra (Irati STS)

Gari Irazabal (AT Lokala)

\* Urtzi Berasaluze izan zen joan den asteko argazkian lurrean botata agertzen zena, eta ez Xabi. Merituak dago-kionari! Urtzirena izan zen lurrera botatzeko grazia hori! Animo mutil, eta barkatu konfusioa, baina antza duzuela ez didazu ukatuko, ezta?

## European korrika, herri-krosean



Sarai Muñoz.

lari guztiak. 78 lagunek hartu zuen parte eta hauetatik 23 Mondragoetik abiatu ziren. Horren kontura, Arrasate Kirolak Atletiko Taldeko kideek inguruetakoz geroz eta korrikalari gutxiagok parte hartzen dutela azpimarratu zuten; batez ere, emakumez-kotan igarri dute korrikalari kopuruaren jaitsiera. Kontuak kontu, aurtengo lasterketa Richar Fernandezek irabazi zuen 24'5"ko denboraz.

Emakumez-kotan, Sarai Muñoz Iurretako neska gaztea izan zen irabazlea, 31'19"ko denborarekin.



Richar Fernandez.

Joan den igandean euripean aritu ziren Eskoriatza-Arrasate herri-krosean. Eta korrika, bizkor aritu ziren. Richar Fernandez oñatiarrak jarri zuen erritmoan joan ziren korrika-

**BETERANOTAN, ONDO** Gizonezko beteranoen artean, Javier Mentxaka arrasatearra izan zen lehenengoa. 26'40"ko denbora behar izan zuen berak 8,5 kilometroko

ibilbidea egiteko. Emakume beteranoen artean, irabazlea Amaia Mazorriaga abadiñarra izan zen. Mari Jose Gil hirugarren izan zen 35'48"ko denborarekin.

## Arrasate, Baiona eta Bera-Bera txapelkun

II. Nazioarteko Zazpinako Errugbi Txapelketako irabazleak dira Arrasate, Baiona eta Bera-Bera. Bakoi-tzak bere mailan jokatu zuten, brontzezkoan, zilarrezkoan eta urrezkoan, hurrenez hurren.

Atxabalpen oso giro polita egon zen eta partidak ere, zazpi minutukoak izan arren, maila handiko neurketak izan ziren.

Brontzezko mailan, Arrasate, Gastedi eta Eibar izan zen sailkapen ordena. Zilarrezko mailan, Aviron Bayonnes lehenengo, Hernani bigarren eta Bera-Bera hirugarren. Urrezko mailan Bera-Bera, Esait eta Ordizia izan zen ordena.

Antolakuntzakoak gus-



Potato kapitainak jaso zuen garaikurra.

tura gelditu ziren eta baita jokalariek ere.

Hego eta Iparraldeko taldeen jokoa ez dela berdina azpimarratu zuten parte hartzaileek, baina ondo dagoe-la elkarren aurka aritzea, gau-

za berriak ikasteko. Sari bana-keta herriko plazan egin zen: bertan ipini zuten Garagar-doaren Jaia egiteko karpa erraldoia eta plazan bertan banatu zituzten errugbi txapelketako sariak ere.

## Final laurdenetara

Arrasateko pilotariak Gipuzkoako herri arteko eskuz bina-kako final laurdenetarako txartela eskuratu zuten ostiralean. Jokatu ere egin barik 3 eta 0 irabazi zieten donostiarrei.

Donostiako pilotari bati bere fitxa ahaztu zitzaion eta epaileak horrela ezin zela aurrera segitu-eta, kanporaketa bertan behera utzi zuen. Aurreko astean ere Lezo horrela kaleratu zuen Tolosak. Beraz, pilotarien gurasoen kexu guztiak alferrikakoak izan ziren.

Azkenean, bada, harmailetan harridura eta denak etxera pilota jokorik ikusi barik. Bitartean, Mondragoek 3 eta Donostiak 0, eta txapelketako final laurdenetarako txartela poltsikoan.

Hurrengo kanporaketa Azkoitiren aurka izango da, ostiralean bertan.

## Anoetan irabazi

Arrasate Kirolak Atletico taldeko alebinek Kutxaren Gate-txeoen Elkartek antolatu zuen "2000ko Atletiada" irabazi zuten. Arrasateetik hiru taldek hartu zuten parte. A taldeak txapela jantzi zuen. B laugarren sailkatu zen eta C, seigarren.

A taldean Ander Trojolak urrezko domina lortu zuen 80 metroko lasterketan. Gauza bera egin zuen Lander Errastik luzera jautsian. Beñat Barberenak, bestalde, brontzezkoa eskuratu zuen pisu jaurtiketan.

Hiru kirolari hauek eta Markel Blancok 4x60 errelebutako lasterketan hartu zuten parte eta zilarrezko domina lortu zuten.

B taldean zilarra irabazi zuen Iban Torresek, pisu jaurtiketan.



**ARRASATE  
KIROLAK**

Erantzuna badakizu, ekarri osteguna baino lehen Arrasate Pressera.

Hilaren bukaeran irabazleen artean zozketa egingo da zuzenean Mondiasport saioan, sari mundiala etxeratzeke.

**Aurreko asteko erantzuna:** AKPk eta Arrasate Saskibaloitako taldeak 3x3 txapelketa antolatatu zuten.

**Galdera:** Uztailan zein zortzimilakora igoko dira Aretxabaleitako hiru mendizale?

Erantzuna: .....

Izen-abizenak: .....

Helbidea: ..... Tel.: .....

## Saskibaloitxo txapelketa

Larunbat eta igandean 3x3 saskibaloitxo txapelketa jokatu da Arrasaten. Arrasate Saskibaloitxo Taldeak eta Arrasate Kirol Proiektuak antolatu dute eta Arrasateko txapelketan sailkatzen denak Euskal Herriko Txapelketan jokatu du Gasteizen.

Jokin Zaitegi plazan izango dira partidak larunbat eta igandean, goizean 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldean, 17:00etatik 20:00etara.

Jaurtiketa librean eta hirukoien lehiaketa ere jokatu da.

Bilbo, Gasteiz, Iruñea, Donostia, Arrasate eta Errioxako 3x3 txapelketako ira-



Goiz eta arratsaldez arituko dira.

bazleak Gasteizera joango dira euren arteko txapelketa jokatuz.

## Xake txapelketa

San Andres Xake taldeko lau kideek Bergaran jokatu dute asteburuan Nazioarteko Xake Txapelketan. Txema Hernando, Isidro Ruiz, Josu Tornay eta Jabier Aspe arituko dira domekan Migel Altuna Ipintza institutuan. Banakako partidak jokatu dira, goizeko 10:00etatik aurrera. Oso maila handiko txapelketa izaten da Bergarakoan.

Joan den igandean Beasainen hirugarren sailkatu ziren hango Nazioarteko Xake Txapelketan. Orereta eta Grosen atzetik. Taldea Ortegak, Tornayk, Hernandok eta Isidro osatu zuten.

## Gipuzkoako txapeldunak



Bigarren gazte mailako arrasatearrak dira aurtengo Gipuzkoako txapeldunak. Joan den astean Elgoibarren jokatu zuten finala, Ilintxaren aurka. Ez zen edozelako partida izan, gainera. Final handietan bezala, talde biak aritu ziren gogor eta bigarren aldiaren amaierara launako berdinketarekin iritsi ziren. Gauzak horrela, urrezko golak erabaki zuten aurtengo txapelduna eta hori ere mondragoetar

batek sartu zuen: Iker Lopezek sartu zuen gol erabakigarria. Zorionak, bada, Ikerri eta talde osoari!

Ohorezko gazte mailakoek, bestalde, udako oporrrak hartu aurretik, beste txapelketa bat jokatu dute. Asteburu honetan Gasteizen arituko dira "Ajuria Gasteiz" txapelketan. Lau taldek hartuko dute parte eta zapatuan eta domekan jokatu dira partidak. Zorte on!

## Infantilen lasterketa

Arrasate Kirolak txirindulari taldeko kideek Arrasaten izango dute lasterketa asteburuan. Infantil mailakoak Markuleteko industrigunean arituko dira, larunbatean, 16:30ean. Joan den astean Eibarren ibili ziren eta Jon Lete laugarren sailkatu zen.

## Etxeberria Realera?

Zurumurrak baino ez dira, baina dirudienek Realeko entrenatzaileak Imanol Etxeberria fitxatu nahi du, Albertorekin batera Realeko atezain izateko. Imanolek oraindik urtebete kontratua dauka Athleticekin eta 2.000 milioi pezeta ordaindu beharko luke Realak berarengatik.

Imanolek adierazi duenez, eskaintza guztiak aztertu behar dira eta Clemente, entrenatzaile bezala gustuko du.

## Zarzuela berpizteko "Izaskun Murgia Lirika Elkarte" jaio da

30 urte eta gero, arrasatearrok zarzuelarekin gozatzeko aukera izango dugu. Jesus Maria Artze eta Arrasate Musikaleko Tere Gonzalez irakaslearen ekimenari esker, "Izaskun Murgia Lirika Elkarte" jaio da. Iaz *El Caserio* jokatu zen, baina hemendik aurrera mai-zago ikus ahal izango ditugu zarzuelak.

Zarzuela berpiztea da helburua. Estreinakoan, Sorozabalena *La Taberna del Puerto* taularatuko dute abenduan, Amaian. Rol nagusietan Cristina Cubillo, Tomas Aspe, Mikel Balanzategi, Iñaki Olai-zola, Naroa Elorza, Mertxe Salaberri, Josetxu Urrutia eta Migel Izurrategi izango dira. Hil eta erdi daramate entseguak egiten, Tere Gonzalezen eta



Iazko urrian taularatu zen azken zarzuela.

Donostiako Itxaso elkarteko Josean Garziaren esanetan.

### DIRULAGUNTZAK

Batzorde Iraunkorra izango du Elkarteak. Horren lehen egitekoa dirulaguntzak eskatzea izango da. Izan ere,

finantziarioa da Elkartearen traba nagusia: zarzuela bat taularatzea oso garestia da, baina, Tere Gonzalezek esaten duenez, "Arrasaten zarzuelak arrakasta handia zuen, eta oraingo erantzuna ere ona izango dela espero dugu".

## Urruzuno lehiaketan sarituak

Iraitz Agirrek eta Oihan Zubizarretak, 16 eta 14 urteko mondragoetar gazteek, hainbat sari eskuratu dituzte Urruzuno literatura lehiaketa ospetsuan. Iraitzek bi sari eskuratu ditu, prosazko sailean; Oihan, aldiz, poesian nabarmentu da.

Bi gazte hauek badute literatura lehiaketetan eskarmentu paregabea. Iraitzek hirugarren urtez eskuratu du sariren bat Urruzunon. Oihan, bestalde, AEDk urtero antolatzen duen lehiaketan azpitxapeldun geratu zen iaz. Poesiazko bere lehen lana da aurkeztu duena, jeneralean ipuinak idazten dituelako. Zorionik beroenak bi arrasatear hauei.

## Arropa esekigailuen truke, haurrei lagundu

Otalora kaleko Vit-Sec arropa garbiketa dendak eta Bat-Eginik Gobernu Kanpoko Erakundeak egitasmo polit bat jarri dute abian, Guatemalako ume behartsuei laguntzeko. Lurrealde hartako Pochata herriko umeek jasoko dute laguntza hori.

Vit-Sec-ek gaurdaino eman dituen pertxak bueltatzea eskatzen die bezeroei, eta hauen balioa Bat-

Eginik GKEri emango dio tindategiak. Ingurumena babesteko ere balio du neurriak, arropa esekigailuak egiteak kutsatu egiten duelako, PVCa botatzen baita airera.



### LEHENENGOA

Vit-Sec, Euskal Autonomia Erkidegoan horrelako egitasmo bat aurrera daraman lehen arropa garbiketa denda da. Orain hiru bat aste hasi ziren ekimen honekin, bai Arrasaten, bai eta Durangon.

Espero dezagun arrakasta izatea kanpaina honek, oso aukera ona ematen digulako haur bati laguntzeko.

## Jendaurreko entsegua

Haurren Egunaren aurrerapen moduan, Arrasateko haur dantzariak jendaurrean, herriko plazan, egingo dute ordubeteko entsegua, 18:30etik aurrera.

4 urtetik gorako umeak izango dira. Eguraldiak laguntzen badu, dantza sorta polita eskainiko dute plazan: jokudantzak, soltea, makil dantza eta abar.

## ARRASATE HOTELA



Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16  
ARRASATE



## Edertu

Ile apaindegia · Solariuma

*Eskaintza berezia solariumean*

San Andres auzoa · Tel.: 943 79 04 28  
ARRASATE



## asteko filma



### Pitch Black

EEBB, 1999. Zientzia-fikzioa.

**Zuzendaria:** David Twohy.

**Aktoreak:** Vin Diesel, Radha Mitchell, Cole Hauser, Keith David.

#### HARIA

Gizaldiak asko aurreratu du: hainbat kolonia ditu espazioan, eta horietako batera espaziantzi bat doa, 39 lagun daramatzala. Bidaia odisea bihurtuko da: kriminal arriskutsu bat, istripua, meteorito zaparrada, derrigorrezko lurreratzea, urik gabeko basamortu batean galduta eta iluntasunarekin datozen munstro basatien erruz, gorriak ikusiko dituzte.

#### KRITIKA

60. eta 70. hamarkadetan ezagunak egin ziren lau txakur handi eta asmatzen handiarekin egindako zientzia-fikziozko filmak. Hamarkadak joan eta etorri, binomioak buelta eman du, eta orain diru asko eta imajinazio oso pobrearekin egindako filmak dira nagusi. Hori da Pitch Blacken kasua. Izan diren eta izango diren hainbat filmetako elementuekin koktel sofistikatu egiten du Twohyk. Hori bai, entretenimendu modu ona da.

## irakurle eta entzule

Iturria: Gorabehera liburudenda

### diskoak

#### NUMEN

Haize sorginduen intziriak (Wolf Records)



Otsailetik dago eskuragai Arrasateko Numen taldearen maketa hau, baina orain jaso du bultzakada handia, Bilbo


Hiria rock lehiaketan parte hartu ondoren. Musika estilo oso pertsonala jorrazten du mondragoetar seikote honek: death blackaren hots zorrotz eta gogorak ikutu melodiko nabarmen batekin leuntzen dituzte.

Kontraste handiko maketa da, oro har. Bost abesti ditu, eta horietatik azkena, "Beotibar", Benito Lertxundiren konposaketa baten moldapena da, kontrapuntu egokia. Death blacka melodiaz bustitze horretan, letrek zerikusi handia dute, eta merezi dute irakurtze eta entzute bat: poesia eta mistikaren eragina zuzenez da.

### liburuak

#### CUERPO DE MUJER, SABIDURIA DE MUJER

Christiane Northrup Drea. (Urano). 942 orr., 4.500 pta.



"Gaur egungo edo iraganeko baldintzak direnak direla, bizi bete bat izan dezakegula sinisten duen jende guztiari dago dedikatua liburu hau." Northrup doktoarearen aurkezpen hitzok pri-

meran egokitzen zaizkio liburu mamitsu honi. Ahalik eta ikuspegi gehienetatik saiatu da egilea emakumearen unitbertsoa behatzen: sineskeriak, mitoak, intuizioa, gorputza, sexualitatea, sentimenduak... Osasuna bakoitzak zain dezakeen ondasuna dela, eta gorputzaren, sineskeren eta bizimoduaren arteko harmonian datzala adierazten zaigu. Ikasteko eta gozatzeko liburu aparta.

## asteburuan zer

### kontzertuak

#### BARON ROJO JAMEN



Baron Rojo taldeak Espainiako rockaren historiaren pasadizo handienetarikoa batzuk idatzi ditu. 1981ean plazaratu zuten lehengo diskoa, *Larga Vida al Rock and Roll*, eta horrekin lehen Urrezko Diskoa lortu zuten. Hortik aurrera, izugarizko sormen eta



aktibitate garaia hasi zuten taldekoek. Euren bigarren diskoak, *Volumen Bru-*

*talek*, 2.000.000 kopia gora saldu ditu gaurdaino mundu osoan. Ingalaterran, Hego Ameriketara eta Europan zehar kontzertu sortak eman ditu Baron Rojok, eta Espainiako rocka gailurreraino eramanez.

80. hamarkadan, ia urtero kaleratzen zuten diskoren bat, 1990. urtera arte: urte horretan, krisialdia izan zuten taldeak: Hermesek eta Sherpak taldea utzi eta De Castro anaiek Baro Rojoren pisu osoa euren gain hartu zuten. Angel Arias eta Jose Martosekin, taldea berrosatu zuten. *Desafío*, diskoaren izena, ezin hobeto doakio Baron Rojori, izan ere, historia iraganen utzita, erronka berriei aurre egitea erabaki dute. Bergarako Jamen izango dira egubakoitzean, 22:00etan. Leire Aperribai eta Garikoitz Kortazar bertan izango dira.

### kontzertuak

BERGARAKO JAM ETA GO-JAMEKO KONTZERTUETARAKO SARRERAK.

Ekainak 17: **Kaos etiliko**

**2**

sarrera zozketatzen ditugu.

Kontzertuetarako irabazleak gaur gauean Soinuz Blaien. Txartelak ekartzeko azken eguna: ASTEAZKENA

Izen-deiturak: .....

Tel.: ..... Eguna: .....



J. ZUBIAGA, G. LIZARAZU, A. ZUMALDE (AKTOREAK)

# “Euskal Herrian antzerkiak ez du tradizio handirik”

Zapatu honetan, 22:30ean, Getxoko Antzerki Eskolak *Compromiso* antzezlanak jokatu du Amaia Antzokian. Parte hartuko duten ikasleen artean, hiru arrasatear ditugu: Jon Zubiaga, Garbiñe Lizaranzu eta Aitziber Zumalde.

## —Nolakoa da antzezlanak?

—Albert Boadellaren *El Nacional* antzezlanaren moldaketa bat da. Lan horren zati batzuk gorde dira, baina beste batzuk Eskolako irakasle den Aintza Uriartek idatzi ditu. Beraz, bi zati nahiko bereiztuak daude: Boadellarena antzerki munduaren satira bat da, eta Aintzarenak ikutu poetikoa ematen dio, aktoreen sentimenduak kontatzen direlako. Azken batean, aktoreek euren lanbidearekiko duten konpromisoa islatu nahi da.

## —Zaila izan zaizue lan hori prestatzea?

—Bai, oso sinbolikoa delako, batez ere zati poetikoetan. Aktore moduan kostatzen bada, gure ustez ikusleei ere ahalegina eskatzen zaie antzezlan hau ulertzeko. Ikusteko oso polita da, musika, abestiak eta dantzak ere badituelako; hala ere, duen karga sinbolikoak antzezlan ezohiko egiten du *Compromiso*. Baina, umorea ere eskaintzen du. Publikoaren sentipenak ikutu nahi ditu.

## —Euskal Herrian ez ote gaude era horretako antzezlanak ikustera ohituta?

—Ez, antzezlan errealistagoak eta zuzenagoak egiten dira. Hala ere, jeneralean, esan beharra dago Euskal Herrian ez dagoela antzerkia ikusteko



tradizio handirik, Katalunian edo Andaluzian ez bezala. Akaso marketing apur bat falta zaio hemen antzerkiari.

## —Hortaz, zaila da Euskal Herrian aktore izatea?

—Antzerkiak egoera hobea bizi du Euskal Herriatik kanpo. Hala ere, hemen lan faltarik ez dago, baina asko mugitu behar zara aktore izan nahi baduzu. Urte asko behar dira, eta gauza desberdin piloan egin beharra dago: iragarki bat hemen, telesail bat hor, harik eta zuk nahi duzuna lortu arte.

## —Zer iruditzen zaizue telesailetan agertzea?

—Gure helburua ez da telesailetan lan egitea, beti rol berbera egitea; aktore batentzat hori ez da erronka. Baina, hasteko modu ona da. Jende askok uste du aktore lana mauka dela, erraza eta ondo ordaindua dela, famatu egiteko aukera ematen duela... baina, oso bide luzea eta gogorra da.

“Askok uste dute aktore lana mauka dela, baina bide luzea eta gogorra da”

## aste gazte

### ■ LANA

- Usurbilgo Udalerako liburutegi laguntzailea behar da. Epea: ekainak 14.
- Gazteria, kultura eta kirol teknikaria behar da Etxebarriko Udalerako. Epea: ekainak 14.
- Bergararako lorezainak behar dira. Epea: ekainak 17.
- Administrari eta administrari laguntzaileak Bizkaiko Foru Aldundirako. Epea: ekainak 21.

### ■ DIRULAGUNTZAK

- Leonardo da Vinci beka, Europako enpresatan praktikak egiteko aukera, ikasketen azken urteetan egon edo ikasketak bukatu berri izanik, lan esperientziarik ez dutenei zuzenduta. Epea: uztailak 14.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoari buruzko ikerkuntzak egiteko dirulaguntzak. Epea: irailak 1.

### ■ LEHIAKETAK

- GAZTEMANIAK! CDA argitaratzeko deialdia egin du Gipuzkoako Diputazioak. Kontratu diskografikorik ez duten musika taldeekin osatutako CD bat izango da. Konpaktu eta taldeari buruzko informazioa bidaltzeko epea: irailaren 9ra arte.

### ■ UDAKO IKASTAROAK

- Debako Arte Eskolak, udarako hainbat ikastaro antolatuta du: grabatu kalkografikoa (hastapena), zeramika (hastapena), brontzea, marrazketa eta pintura, marmol eskultura, egur langintza.

### ■ LEHIAKETAK

- Zumarraga-Urretxuko Udalak hainbat lehiaketa antolatuta du: argazki, pintura, bertsopaper eta komiki lehiaketa. Epea: irailak 8.

Argibideak:  
GAZTE ZERBITZUA  
☎ 943 77 00 65

# Goitb

Goiena Telebista

## egunez egun

### OSTIRALA, 9

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**  
 13:40 **Gatza eta Berakatza.**  
 Mari Karmen Telleria,  
 Garoa jatetxeko  
 sukaldaria.  
 13:50 **Musiklasik** (errepika).  
 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**  
 21:30 **Astebete.** Asteko  
 albisterik nabarmenenak,  
 Eneko Azkaratek  
 aurkeztua.  
 22:00 **Gatza eta Berakatza**  
 (errepika).  
 22:15 **Soinuz Blai** (errepika).  
 Edu Abasolo.

**Berakatza, Hamaika  
 Magazin, Herriz Herri Zer  
 Berri?, Musiklasik,  
 Soinuz Blai, Astebete.**

### ASTELEHENA, 12

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**  
 13:40 **Gatza eta Berakatza.**  
 Eulali Mazkieran, Matikua  
 jatetxeko sukaldaria.  
 13:50 **Astebete** (errepika).  
 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**  
 21:30 **Goienasport.**  
 22:00 **Gatza eta Berakatza**  
 (errepika).

### LARUNBATA, 10

- 13:30 Asteko saioen errepika:  
**Jolasplast, Gatza eta  
 Berakatza, Hamaika  
 Magazin, Herriz Herri Zer  
 Berri?, Musiklasik,  
 Soinuz Blai, Astebete.**

### ASTEARTEA, 13

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**  
 13:40 **Gatza eta Berakatza.**  
 Kontxi Juantorena, Uxarte  
 jatetxeko sukaldaria.  
 13:50 **Goienasport** (errepika).  
 19:20 **Jolasplast.**  
 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**  
 21:30 **Hamaika Magazin.** Odol  
 emaleak eta bernetako  
 masajeak izango dira gai  
 nagusi, ohiko atalekin

### IGANDEA, 11

- 13:30 Asteko saioen errepika:  
**Jolasplast, Gatza eta**

- batera.  
 22:00 **Gatza eta Berakatza**  
 (errepika).

### ASTEAZKENA, 14

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**  
 13:40 **Gatza eta Berakatza.**  
 Igor Ezpeleta, Elizondo  
 jatetxeko sukaldaria.  
 13:50 **Hamaika Magazin**  
 (errepika).  
 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**  
 21:30 **Bergarako Mentekoste  
 jaiak** (programa berezia)

- Dukiena jatetxeko  
 sukaldaria.  
 13:50 **Mentekoste Jaiak:**  
 Errekortadoreen  
 Euskadiko Txapelketa.  
 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**  
 21:30 **Astebete.** Asteko  
 albisterik nabarmenenak,  
 Eneko Azkaratek  
 aurkeztua.  
 22:00 **Gatza eta Berakatza**  
 (errepika).  
 22:15 **Soinuz Blai.** Edu  
 Abasolok eta Miren  
 Gonzalezek aurkeztuta;  
 denboraldiko azken  
 programa berezia.



Begarako jaietarako aurkezleak.



Miren eta Edu.

### OSTEGUNA, 15

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**  
 13:40 **Gatza eta Berakatza.**  
 Alberto Elortza, Zelai  
 Zabal jatetxeko sukaldaria.  
 13:45 **Begarako Mentekoste  
 Jaiak** (errepika).  
 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**  
 21:30 **Mentekoste Jaiak:**  
 Errekortadoreen  
 Euskadiko Txapelketa.

## Gatza eta Berakatza

**PLATERAK: Arrainak**

**Astehena 12**

Bakailaoa.

**Astearte 13**

Bakailao-kokotxak almejekin.

**Asteazkena 14**

Txipiroi eta almeja salteatua.

**Osteguna 15**

Ganha eta onddoez  
 betetako mihi-arraina.

**Ostirala 16**

Bakailaoa perretxiko  
 saltsan.

### OSTIRALA, 16

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**  
 13:40 **Gatza eta Berakatza.**  
 Edurne Isarzelaia,

*Lore*

- Lurrindegia • Kabina •
- Fotodepilazioa •

Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50

**TXIRRITA**  
 Taberna

Garagardo ona  
 Giro hobea

Gesalibar auzoa  
 Tel.: 943 79 10 35

**S. CARRASCAL S.L.**

**Guk egindakoak:**

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

**Fabrikan erakusketa**

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a  
 Tel/Faxa: 943 79 01 82

# GOITB Bergaran eta Elgetan

Goiena Telebista Bergaran ere ikusi ahal izango da ostiraletik aurrera. Mendekoste jaiak direla eta, Jardun elkarteak behin behinako irtenbide bat aurkitu du. Seinalea Aizemenditik helduko da etxeetara. Beraz, UHFko 43. kanalean sintonizatuko da Goiena Telebista.

## ZAIASKOREN LAGUNTZA

Jose Angel Mikeo Jarduneko lehendakariak esan digunez, "orain dela sei hilabete aurkeztu genion Udalariko proiektua eta erantzuna atzeratzen ari da. Jende asko ari zaitzugu galdezka Bergaran GOITB zergatik ez den ikusten. Zaiaskori entzuna genion Bergaran telebista jartzea erraza zela eta haren-gana jo genuen".

Jardunek Zaiasko elektronikara etxera jo zuen eta Goiena Telebista Bergaran ikusteko zer aukera zeuden planteatu zitzaion Luis Azkondori. Horren erantzuna baiezkoa izan zen.

Ondorioz, aste honetan Aizemendin ibili da Luis Azkondo lanean eta GOITB Bergarako etxe gehienetara heltzeko bidea egin du. Ez da etxe guztietan ikusiko, baina gehientsuenetan bai. UHFko 43. kanalean sintonizatu beharko da GOITB. Seinalea Elgetara ere ailegatuko omen da, baina han antenak Aizemendira begira jarri

beharko lituzkete, GOITB ikusteko. Antzuolan, berriz, ez da ikusiko.

## BERGARAKO JAIK GOITBN

Bergarako pazkoen gaineko saio berezia eskainiko du Goiena Telebistak. Ekitaldi azpimarragarrienak grabatuko dituzte eta jaien biharamunean ikusiko dira. Bi programa ikusiko dira: jaien errepaso eta erreportadoreen txapelketa.

Beraz, GOITBko kamerak Bergaran izango dira jaietan. Aurkezle lanetan sei bergarar gazte: Eider Arantzabal, Ane Miren Zabala, Igor Larrañaga, Aitzol Mujika, Oihan Vega eta Anartz Agirre.

Erreportadoreen txapelketa osorik hartuko da eta grabatu bezala eskainiko da. Ibon Larrañaga eta Juan Luis Bikuña ariko dira irudiak komentatzen.

## ESKORIATZAN ERE BAI

Joan den astearte ezker eskoriazkarrek ikusi ahal dute Goiena Telebista. Pieza bat falta zen hori lortzeko eta azkenean iritsi da. UHFko 29. kanala sintonizatu behar dute GOITB ikusteko. On egin!

## Iluntzean Berriketan



Jorge Fernandez, Mister Espainia eta Mister Euskadi, elkarriketatuko dute Almeneko hiru neska gaztek Iluntzean Berriketan martitzenean, arra-

tsaldeko 19:30ean, Arrasate Irratian.

Adi txutxumutxuei! Urrezko adierazpenak aterako dizkiote eta neska hauek!



## ZORIONAK KEPA!

Kepa Gomez izan zen Goienasport saioan Arrasate Kirolakek ematen dituen sarien irabazlea. Hurrengoan zu izan zaitezke!

arrasate  
irratia



## ASTELEHENETIK OSTIRALERA

- 09:00 Albisteak.
- 09:30 Goizoro magazina.
- 11:00 Formula 10.
- 12:00 Zeu be bai.
- 14:35 AED lehiaketako irrati erreportajeak.

## ASTELEHENA

- 19:30 Iluntzean Berriketan. euskal futbolariak.
- 20:00 Draxtor.
- 21:00 In Session.

## ASTEARTEA

- 19:30 Iluntzean Berriketan Jorge Fernandez, Mister Espainia.
- 20:00 Hi bizi hadi!
- 21:00 Jakiliplost.

## ASTEAZKENA

- 19:30 Iluntzean Berriketan. Alaitz eta Maider.
- 20:00 Farandula L.P.
- 21:00 KK2A.

## OSTEGUNA

- 19:30 Iluntzean Berriketan. La Oreja de Van Gogh.
- 20:00 Ostegunero.
- 21:00 Musika.

## OSTIRALA

- 19:30 Iluntzean Berriketan. Araba Euskaraz.
- 20:00 Planning prest!
- 21:00 Kale doinuak.

## LARUNBATA

- 10:00 Jakinguraz beteta.
- 11:00 Zoroklasikoak.
- 12:00 Bi zoro ta zu!

Zuzenean parte hartzeko telefonoa: 943 71 17 31.

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Etxea salgai, 45 m<sup>2</sup>koa zentroan. Konponketak egiteko. Tel.: 943 79 81 25. Gauzez.

• Etxea salgai San Andresen. 3 logela, egongela, sukalde. Tel.: 943 79 84 08. Gauzez.

### 2. Erosi

• Etxebizitza erosi nahi dugu Armaio edo Aretxabaleta inguruan. Tel.: 629 92 24 48 82.

• Etxea erosi nahiko nuke erdialdean. Tel.: 646 41 01 15.

### 3. Errentan emateko

• Etxebizitza alokagai San Andresen. Tel.: 943 79 96 39, astegunetan deitu.

• Apartamentua alokagai Laredon. Hondartzara ondoan. Tel.: 943 79 52 80.

• 3 logelako etxea alokagai San Andresen. Tel.: 607 84 86 73.

• Zarautzen logelak alokagai. Etxebizitza lasaia, eguzkitsua eta erdialdean kokatuta dagoena. Tel.: 630 71 35 83.

• Etxebizitza alokagai Donostian (Antiguon) uztail eta irailerako. Tel.: 943 79 82 05. 22:00etatik aurrera.

• San Andresen 5 ikaslerendako etxebizitza alokagai. Tel.: 943 79 17 25. 21:00etatik aurrera.

• Apartamentu bat daukat alokatzeko ekainean, hilabete osoan edo zati-ka ere bai. Donostian, Grosen, hondartzatik oso gertu. Tel.: 943 71 96 29, 943 79 82 47.

• Apartamentua alokagai Culleran (Valentzia). Igerilekua, frontoia eta garajea. Hondartzaren ondoan. Uztail-ean eta irailean. Tel.: 943 79 93 86. 20:00etatik aurrera.

• Etxea alokagai Torreveja erdialdean. Igerilekuarekin. Uztaila, abuztua eta iraile. Tel.: 943 79 63 55.

### 4. Errentan hartzeko

• Lau neska arduratsuk etxebizitza alokatuko genuke Arrasaten. Tel.: 630 78 53 68, astean zehar, Miren, Enara. 943 88 55 68, asteburuetan, Miren.

• Etxebizitza bat behar dugu 5 mutilek. Tel.: 943 88 69 75. Orkatz.

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohaineakoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

### 5. Etxeak osatzeko

• Jendea behar da etxebizitza osatzeko San Andresen. Tel.: 649 68 22 25. Gorka, gauzez.

• Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 77 15 67.

• Aretxabaletako etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Tel.: 943 71 99 94. Marta, lanorduetan.

## GARAJEAK

### 9. Errentan emateko

• Erdialdean dagoen garaje itxia alokagai. Tel.: 943 79 01 84. Eburne.

• Garajea eta trastelekua alokagai Uarkapen. Tel.: 943 79 01 84.

## LOKALAK/ORUBEAK

### 12. Saldu

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100m<sup>2</sup>ko eta bi solairuko loka- la salgai. Tel.: 943 79 18 70.

### 14. Errentan emateko

• Martxan dagoen denda alokagai Aretxabaletan. Tel.: 626 37 93 26.

## LANA

### 17. Eskaintza

• Klinika auxiliarra, gaixoak eta pertsona helduak zaintzeko prest, etxean edo erietxean. Esperientziaduna. Etxeko lanak egiteko prest. Tel.: 943 79 09 31

• Etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko prest nengoke. Tel.: 943 79 20 55.

• Neska prest umeak zaintzeko. Tel.: 943 79 78 36. Jacqueline.

• Neska prest edozein lanerako. Tel.: 943 79 78 36.

• Neska prest umeak zaintzeko, arratsaldetan. Tel.: 943 71 53 74.

• Neska bat prest arratsaldean lan egiteko. 16:30etik aurrera, umeak zaindu edo etxea garbitzeko. Tel.: 646 41 01 15.

### 18. Eskaerak

• Jatetxe batek zerbitzariak eta banatzaileak behar ditu. Tel.: 943 79 45 64.

• Neska edo emakumea behar da umea zaintzeko. Tel.: 943 77 00 19.

• Pertsona bat behar da asteburutan tabernan aritzeko. Tel.: 945 44 50 95.

• Neska edo emakumea behar da haurrak zaintzeko. Tel.: 943 77 04 31.

• Esperientziadun jostuna behar da era guztietako arropak egin eta konponketak egiteko. Tel.: 943 79 89 72.

• Pertsona bat behar da 2 ume zain- tzeko irailetik aurrera. Tel.: 600 74 49 56.

• Aramaioko ile apaindegi batera- ko langile bat behar da. Tel.: 945 44 50 35, 945 44 52 94.

• Etxeko lanak egiteko emakumea behar da. Tel.: 943 79 19 64, 22:15etik aurrera.

• Pertsona bat behar da Office eta Visual Basic-en aditua, informatika dendan lan egiteko. Tel.: 943 76 91 27.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Esperientziadun filologoak eus- karazko eskolak ematen ditu. Eus- kalduna, mintza praktika, alfabetat- zea, EGA. Talde txikiak eta mer- ke. Tel.: 630 71 35 83.

• Ingeles filologiazko ikasle batek ingelesezko eskolak emango lituz- ke, bai Eskoriatzan eta baita Mon- dragoen ere. Oporretan ere bai. Tel.: 943 71 47 85.

### 21. Eskaerak

• DBHko 4. mailako eskolak ema- teko pertsona bat behar da. 943 79 57 31 (18:00etatik aurrera).

• Filosofia lizentziatua behar da UBI- ko ikasle bati eskola partikularrak emateko. Tel.: 943 79 33 91.

## MOTORRA

### 23. Saldu

• R5 autoa salgai. SS - T, egoera onean. Tel.: 943 79 11 99.

• Clio 16v salgai, 80.000 km. 93.

urtekoa, estrak. Tel.: 606 76 50 29.

- Fiat Uno autoa salgai, VI - L, merke eta oso egoera onean. Tel.: 943 77 10 59.

- Vespino NLX ia berria salgai. Merkea. Tel.: 619 65 40 69.

- Ford Escort familiarra salgai, 16 balbula. SS-BB. Tel.: 943 79 91 27.

- Yamaha special 250 cc. salgai. 3 urte, 8.000 Km. Berri-berria. Tel.: 943 79 83 17. 21:00etatik aurrera.

- Peugeot 205 diesel autoa salgai, SS - 0175 - AC. Egoera onean. Tel.: 943 79 49 18, gauetan.

- Motorra salgai. Scooter, 12.000 km. 100.000 pta. Tel.: 943 79 69 64. Xabi.

- Peugeot 205, SS - V salgai. 60.000 pta. Tel.: 943 79 49 69.

- Opel Kadet GSI autoa salgai, 2 - 0, 130 zaldi. Tel.: 943 79 16 43.

- Fiat Tipo 1.600 VI-K, salgai. 5 ate, itxigailu zentralizatua, leiho igogailu elektrikoa eta aire girotua. Oso egoera onean. Tel.: 670 26 46 96.

- Opel Calibra 2.0i 16v. NA - AK. Tel.: 619 42 48 72.

## DENETARIK

### 26. Saldu

- Karabana alokagai. Beau-Bouceun. Hiru literaduna, ohe txiki eta handi bana (bikoitza). Sukaldean kanpoan frigorifiko handiarekin. Ekaina, uztailea eta abuzturako. Tel.: 946 23 17 96. Itziar edo Mertxe.

- Karro denda alemana salgai, egoera eta prezio onean. Tel.: 943 79 73 04.

- Artzain txakurrak salgai. Tel.: 656 72 85 00.

- Ezkonlogela salgai. 1,35 metroko ohea, 2 mahai txiki eta 2 m. luze den armairua. Marroi ilunak, oso egoera onean. Laminazko somierra doan. 50.000 pta. negoziagarriak. Tel.: 943 79 41 31.

- Philips / Whirlpool No Frost Plus, 1,68 alturako hozkailua salgai. Ia berria. Tel.: 943 79 34 16.

- Gazteentzako logela salgai, ohe habia, 1,70ko armairua, apala, mahaia etab. Tel.: 943 79 34 16.

- Piano bat daukat saltzeko, Zimmerman markakoa, berri-berria. Tel.: 943 79 48 10.

- Izozkailu, garbigailu eta sukalde txikia salgai. Oso prezio onean. Tel.:

943 79 18 50, goizez edo 18:00etatik aurrera.

- "Roller" markako karabana salgai. Tel.: 947 79 46 84.

- "Conver 13" markako karro-denda salgai. Tel.: 656 77 85 79.

- Kanpinerako gasezko hozkailua eta sukaldea salgai. Egoera onean eta merke. Tel.: 943 79 64 18. 20:00etatik aurrera.

- Karro-denda bat salgai. Oso egoera onean eta merke. Sukaldea oparitzen da. Tel.: 943 79 56 06.

- 2/4 pertsonarendako kanpin denda berri-berria salgai (15 egunetan erabilia). 2 logela, hall-a eta toldoa dauka. Tel.: 943 74 05 37.

### 29. Eman

- Bi ohe, 110 zentimetrokoa bakoitza, bi mahai txiki eta bi konketa larrosa (roca). Tel.: 943 77 16 63.

- Txakurkumeak oparitzen dira, alsaziarrak. Tel.: 943 79 31 27.

- Baserriko katakumeak oparitzen dira. Tel.: 943 79 97 84, 943 77 06 00.

### 30. Hartu

- Telebista zaharren bat bota nahi izanez gero, gustura hartuko genuke. Tel.: 616 53 36 76.

### 31. Galdu

- Ume baten jaka galdu da Roneo eta Grupo San Juanen artean, joan den ostiralean. Crema kolorekoa da, kotoizkoa. Letra urdinekin eta txapelarekin. Tel.: 943 79 11 59.

### 33. Bestelakoak

- Ziklomotor zahar baten fitxa teknikoa behar dut. Tel.: 943 77 08 02. Joxean.

### 32. Aurkitu

- San Andresen giltza mordoxka duen kremaieradun kartera gorria aurkitu dut. Udaltzaingoa dituzu. Tel.: 943 79 14 39.

- Urrezko pultsera aurkitu dut Munarreko parkean, zurea bada deitu 943 79 90 94 telefonora.

- San Andresen urrezko kate bat aurkitu dut. Tel.: 943 79 04 28.

## lanpostuak

# GOIZ ARGI

## ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA

- Lan-burtsa osatzeko eta oporraldiak betetzeko deialdia.
- Arrasaten eta Antzuolan etxez etxe zerbitzuan lan egiteko.

Informazioa eta eskariak: 943 76 72 16

## LAN ESKAINTZAK

AUKEA Kirol Erakundeak lan-burtsa hau osatzeko deia egiten du:

## ATEZAINAK - ARROPAZAINAK

Oinarriak: Musakolako Kiroldegian (Tel.: 943 77 16 77)

Titulazio akademikoa: Eskola graduatua.

Izen ematea: Interesatuak zuzenean azaldu ekainaren 13an, asteartea, goizeko 10:30ean Arrasateko Udaletxean



ARRASATEKO UDALA

AUKEA ■

Kirol Erakunde

## LAN ESKAINTZAK

## ITURGINA • AROTZA

Gaixotasun bajaz edo oporretan dauden titularrak ordezkatzeko, aldi baterako lan kontratuak eskaintzen dira.

Aurkezteko, baldintza hauek bete behar dira:

- Titulazio akademikoa: eskola graduatua, LHI edo parekoa.
- Iturgin edo arotz ogibideko eskarmentua izatea.

Interesatuak Arrasateko Udaletxera etorri behar dira ekainaren 13an, goizeko 10:00etan, euskara proba, praktikoa eta elkarrizketa egiteko.

Hautaketa prozesua arautzen duten oinarri-arauak Arrasateko Udaleko Pertsonal Sailean jaso daitezke.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■



**B**adirudi Mondragoen berriro ere zarzuelarako zaleztasuna berpizten dabilela. "Izaskun Murgia Talde Lirikoa" jaioberri da herrian, zarzuela bultzatzeko asmo sendoarekin, 50. hamarkadan izandako indarra apurtxo bat berreskuratzeko.

Orduko garaia ekarri ditugu geuk ere gogora aste honetako argazki zaharrarekin. Izan ere, 1960. urteko ekainaren 9an, Jesus Guridi musikaria

Mondragoera etorri zen; urte hartan, Mirentxu zarzuela taularatu zuen Mondragoeko taldeak, Guridiren aurrean.

Arrasatera heltzean harre-  
ra egin zioteneko unea erakusten du argazkiak. Udaleko osoko bilkura aretoan bildu ziren mokadutxo bat egiteko asmoz. Hauexek dira azaltzen direnak: ezkerretik eskumara hasiz gero, eskina-eskinakoa Jose Mari Ayani da, udal langilea, honen ondokoa, apurtxo bat aurrerago dagoena, Jose

Mari Uranga da, udaleko zinegotzia. Segidan, Valentin Carrillo, Ignacio Sainz, Andres Bida-buru eta Segundo Arzamendi daude, guztiak ere zinegotziak. Erdian dagoena, berriz, Jesus Guridi musikaria. Eskuinerantz segituz, Guridiren atzealdean dagoena, Moro udaltzainburua, eta honen ondokoa, Norberto Jauregibarria zinegotzia. Argazkiko emakume bakarra, bestalde, Albina Madinabeitia da, biolinjolea. Ondoan, beste zinegotzi bat dago: Agustin

Azkoaga eta hurrengoa, berriz, Mondragoeko orduko alkateada: Julio Otaduy. Jose Ramon Mendizabal, Etxeberria eta Castellanos dira alkatearen ondolan dauden beste hiru zinegotziak. Apaiza, berriz, On Jose Luis Iñarra parrokoa da eta eskuma-eskuman dagoena, musika bandaren zuzendaria, Justo Munarriz.

-----  
*Argazkia eta berriemailea:*  
Arrasateko Udala



# LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



**Zeramika  
erakusketa eta  
salmenta**

Uribarri etorbidea, 22 - B  
Tel. /Faxa: 943 79 81 80  
**ARRASATE**

## **ERDU AEK Euskaltegian euskara ikastaroak**

uztailean eta irailean

izena emateko epea:  
**ekainak 22**

- ✓ udalaren laguntzaz
- ✓ beka sistema

# **Aukera paregabera**

informazioa eta matrikula:  
ERDU AEKn  
Garibai, 14, 3  
943 77 03 69



Astra

Errepideari itsatsita.



**Teknologia eskubidea da, ez pribilegioa.** Opel Astrarekin, teknologia eta segurtasunik aurreratuena gozatu ahal izango duzu. Opel Astrak Lotus bidez kalibraturiko suspentsioko sistema berritzailea dauka eta bere karrozieraren tinkotasun paregabe eta norabide-efektuko atzeko ardatzari esker, egonkortasunik handiena du autoak. Opel Astra segurtasun gorena eskaintzen dizu. Asfalrtora itsatsita egoteko.

**Serieko ekipamendua:** ABS elektronikoa lau gurpiletan, airbag handia gidariaren eta albokoaren jarlekuan, alboko airbag-ak, lagunduriko direkzio elektrohidraulikoa, DSA suspentsioa, norabide-efektuko atzeko ardatza, altuera eta sakontasunean egokitzeko moduko bolantea, goragailu elektrikoak, irradi-frekuentzia bidezko urrutiko agintailudun itxigailu zentralizatua, lapurretaren aurkako geldiarazte elektronikoa, funtzio anitzeko pantaila: irradi dials, tenperatura eta ordua, erdian beso-jartzekoa maletategira irekia, karrozeria galbanizatua, korrosio-contrako 12 urteko bermearekin.



1.6tik 2.0 16v-rainoko motorrak gasolinan eta 1.7, 2.0 DI 16v eta 2.0 DI 16 v dieselean. 3, 4, 5 ate eta Caravan karrozeriak. Akabera mailak: Club, Comfort, Elegance eta Sportive

[www.opel.es](http://www.opel.es)

OPEL

**TALLERES OLA**

Olabarrena auzoa, z/g. Tel.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN

**TAKOLO AUTOAK, S.L.**

Araba Etorbidea, 3. (escatu pabilioia). Tel.: 943 79 05 86